

EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO GUTUNA

ALDIZKAKO V. TXOSTENA (2014-2016)

Idazketaren data: 2017-07-21



NAFARROAKO GOBERNUA

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako

Departamentua

Euskarabidea / Euskararen Nafar Institutua

Aurkibidea

0.- Sarrera	3
1.- Euskarak Nafarroan duen egoera eta hizkuntza politika berria.	7
1.1.- Euskarak Nafarroan gaur egun duen egoera.	7
1.2.- Hizkuntza Politika berria	9
1.3.-Berritasunak araudian	14
1.3.1. Foru legeak:	14
1.3.2. Foru Dekretuak:	16
1.3.3. Arauen proiektuak:	16
2. Euskara babesteko neurriak	19
2.1.- Euskarabidea/ Euskararen Nafar Institutua	19
2.2.- Euskararen Nafar Kontseilua	20
2.3.- Lankidetzaren hitzarmenak	21
2.4.- Hizkuntzaren esparruko harremanak	21
3. Hezkuntza	28
3.1. Hezkuntza politika.....	28
3.2. Haur Eskolak	32
3.3. Lanbide Heziketa	33
3.4. Unibertsitateko ikasketak	34
3.5. Irakasleen prestakuntza	36
3.6. Irakasleak eta Eskola Kontseilua	38
3.7. Mugaz gaindiko trukeak eta programak	39
4. Justizia	41
5. Agintaritza eta zerbitzu publikoa	42
5.1. Lurraldeko administrazioa: Nafarroako Gobernuak	42
5.2. Toki administrazioa	45
5.3. Estatuaren administrazioa.....	47
6.- Hedabideak	50
7. Kultura	56
8. Ekonomia eta gizarte bizitza	60
9. Mugaz gaindiko trukeak	63

0.- Sarrera

Nafarroako Foru Komunitateak berezko bi hizkuntza ditu, euskara eta gaztelania, eta herritar guztiek dute horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Gainera, gaztelania da ofiziala Foru Komunitateko lurralde guztian eta euskara, berriz, eskualde euskaldunean.

Hizkuntzak gizakiek komunikatzeko duten tresna eta bizitza sozialaren ezinbertzeko euskarri dira, identifikazio kolektiborako osagai eta gizarteko kideen artean bizikidetzarako eta ulermenerako faktore. Aldi berean, hizkuntzak gure iraganaren lekuko dira, belaunaldiz belaunaldi hizkuntza horiek erabiltzen dituzten pertsonen esperientzia kolektiboa bildu, begiratu eta transmititzen duten heinean.

Hizkuntzen arteko harremanak dinamikoak eta aldakorrak dira, eta egoera horri aurre egiten ahal zaio gatazka bat balitz bezala, hizkuntza batek bertzea ordezkatzuz eta kontrako jarrerak sustatuz, edo, aldiz, adostasun guneak bilatuz, bizikidetzak on baterako eta jarduketak ildo adostuak ezartzeko aukera ematen baitute.

Nafarroan gobernuak 2016a arte garatu duten hizkuntza politika ez da bat etorri Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 2.1 artikuluan ezarritakoarekin, eta, hezkuntza arloan izan ezik, hizkuntza politikak ez dira bideratu euskara, Nafarroako bertze hizkuntza, babestera edo sustatzera.

Nafar gizartean, ezari-ezarian, aldaketa handia gertatu da herritarrei aitzina egiten lagunduko dieten adostasunen bilaketaren aldetik. Herritarraren hautuaren errespetuaren ildotik, Nafarroako Parlamentuak aldaketak onetsi ditu Euskarari buruzko Foru Legean; bata, 2015eko otsailean, euskaraz ikasi ahal izateko eremu ez-euskaldunean, eta bertzea, 2017ko ekainean, eremu mistoa handitzeko.

Nafarroako hizkuntzei dagokienez, zentzu positibo eta integratzailearen bila abiatutako eraldaketak kontuan hartu behar ditu alderdi hauek:

- Onartzea Nafarroak bi mintzaira dituela eta biek gure gizartean tratatu bera merezi dutela. Hizkuntzek izaera zeharkakoa dute eta gure gizartearen eremu guztiei eragiten diete.
- Hizkuntza politiken garapena ezari-ezarikoa izan behar da, kontuan hartu behar baititu gure Komunitateko egoera soziolinguistiko desberdinak eta borondatezkotasunaren eta herritarrak egiten duen hautuaren errespetuaren printzipioa.

- Euskarak erabilera esparruak irabazi behar ditu eta itzala eta izen ona eman behar zaio gizartean. Hori, alabaina, ez da eginen gaztelaniaren kaltetan, baizik eta berdintasun tratua emanaz.
- Erakundeetatik ezartzen den hizkuntza politika izan behar da ongi planifikatua eta ebaluatua, herritarrekiko eta gizarte eragileekiko lankidetzan egina, eta aitzinera eramateko behar bezainbat baliabidez hornitua.

Eta hori guztia Nafarroan indarrean dagoen arau esparruaren barnean garatzen da. Hiru arau hartu behar dira kontuan Nafarroan hizkuntza politika garatzeko tenorean: Espainiako 1978ko Konstituzioa; Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea; eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Espainiak 1992an sinatu eta 2001ean berretsi zuena, baita Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioak eta Adituen Batzordeak idatzitako txostenak ere (2005eko, 2008ko, 2012ko eta 2016koak).

Espainiako Konstituzioak honako hau ezartzen du bere hirugarren artikuluan:

1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan beraien Estatutuei dagozkien eran.
3. Espainiako hizkuntza mota ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.

Euskarari buruzko Foru Legeak honako hau ezartzen du bere lehen artikuluan:

1. Foru Lege honen xedea euskararen erabilpen normala eta ofiziala arautzea da, gizarte elkarbizitzaren alorrean nahiz irakaskuntzan.
2. Hauek dira Lege honen ezinbesteko helburuak:
 - a) Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.
 - b) Nafarroan euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.
 - c) Euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraiki, hau guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.
3. Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute.

Bertzalde, 2.1 artikuluan ezartzen da gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla, eta ondorioz, herritar orok duela hizkuntza horiek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

Gainera, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak, bere 7.2 artikuluan, estatu sinatzaileak behartzen ditu alde batera uztera, oraindik egin ez badu, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketenak. Egoera txarrean dauden hizkuntzek beren aldeko ekintzak behar dituztela sinetsirik, Europako Gutunak argi eta garbi dio eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez dela hartuko eremu zabalagoko hizkuntzetako hitunen aurkako diskriminazio-ekintzatzat, neurrian helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainontzeko herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hitun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada.

2015eko uztailan gertatutako gobernu aldaketak ikuspegi berria ekarri dio Nafarroan aitzina eraman beharreko hizkuntza politikari. Nafarroako Gobernuak 2015-2019 legegintzaldirako Programa-akordioak azpimarratzen du hizkuntza politika berri baten beharra, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko dituena eta hizkuntza normalizazioan aitzina egingen duena, printzipio hauetan oinarriturik:

- Zeharkakoa, politika publiko guztietan eta gizarte arloan eragina izan den duena
- Progresiboa eta Nafarroako egoera soziolinguistiko bakoitzari egokitua
- Eraginkorra, ongi planifikatua eta ebaluatua.
- Parte-hartzea bultzatzen duena, herritarren eta euskara sustatzeko lanean ari diren gizarte eragileen lankidetzat bilatzen duena.
- Hizkuntza-eskubideak bermatzeko bidean aurrera egiteko arauzko babes egokia duena.
- Euskarari prestigioa ematen diona gizartean.
- Herritarren askatasuna eta borondatezkotasuna errespetatzen dituena.

2015-2019 legegintzaldirako Programa-akordioan, Nafarroako Gobernuari sostengu ematen dioten alderdiek zenbait neurri ezarri zituzten euskaren arloko politiken gainean. Horietariko gehienak hizkuntza politikaren atalean jaso dira, eta gainerakoak Hezkuntzari, Kulturari eta Funtzio Publikoari dagozkion ataletan. Jarraian zehazten dira, atalez atal, euskarekin ikusteko duten erabakiak:

Hezkuntzaz den bezainbatean, ikuspegia da hezkuntza inbertsioa dela, ez gastua. Gizartearen beraren eta gizartearen eraldaketaren funtsezko oinarria da. Gure errealitatera eta beharretara egokituriko hezkuntza sistema baten alde egiten dugu. Hezkuntza sistema publiko baten alde gaude, titulartasun eta kudeaketa publikoko hezkuntza sistema baten alde, funtsezko ardatz bat baita hori Nafarroako hezkuntza sistemaren barnean, herritar guztiei berdintasun eta demokrazia baldintzetan doako eta kalitateko hezkuntzarako eskubidea ziurtatzeko.

Eleaniztasunari dagokionez, printzipio hauek gobernatuko dute hezkuntza politika:

- Eleaniztasuna sustatzea, Nafarroako berezko bi hizkuntzen ezagutza oinarri harturik: gaztelania eta euskara.
- Euskararen murgiltzeko eta euskarazko irakaskuntza hedatzeko apustuak.

Kulturari dagokionez, hona ikuspegia zein den:

- Herritarrek euskarazko kultura eskaintza baliabide dezaketela ziurtatzeko neurriak hartzea.

Administrazio publikoetan herritarrei arreta emateari dagokionez, hona ikuspegia zein den:

- Administrazioaren egitura eta beharrezko langile motak zehaztea: lanpostuak, profil profesionalak eta hizkuntza-eskakizunak zehaztea.

Orobat, aitortzen da politika publikoetan hizkuntza aniztasuna jaso beharra. Hizkuntzen arteko harremanak dinamikoak dira eta, halako batzuetan, harreman horiek gatazka kutsu bat berengana ditzakete. Halakoetan, liskarrak piztea edo biziagotzea izan daiteke bideetariko bat, edo, aldiz, adostasun bideak bilatzea, hau da, ezartzera saiatzeko lanerako ildo adostuak, giza harremanetan sortzen diren gatazka egoerak gainditzen lagunduko dutenak.

Euskara ikasi nahi duten herritarrek baliabide egokiak behar dituzte, eta euskaraz egiten dutenek, berriz, hura erabiltzeko eremuak; hori, alabaina, ez da egingen gaztelaniaren kaltetan, baizik eta berdintasun tratua emanez.

Nolanahi ere, erakunde publikoek esparru honetan gauzatuko duten hizkuntza politika izan behar da ongi planifikatua, herritarrekiko eta gizarte eragileekiko lankidetzara bideratua eta bere garapenerako beharrezko baliabideez hornitua.

Alde horretatik, 2015-2019 legegintzaldirako Nafarroako Gobernuaren akordio programatikoak konpromiso hau jasotzen du: «Euskararen egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua egitea eta Euskararen Kontseiluak plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkor bat diseinatzea, Gobernuaren hizkuntza-politikaren oinarria finkatzeko».

2016ko otsailaren 16an, Nafarroako Gobernuak Euskararen Nafar Kontseiluan aurkeztu zuen Euskararen I. Plan Estrategikoa, haren helburuekin eta metodologiarekin batera. Une hartatik aitzina, Euskarabidea plan horren prestaketan aritu da, euskararen berreskurapenera eta haren erabilera sozialaren hedapenera zuzendutako bere ekintza antolatzeke, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuz eta hizkuntza politika zeharkakoa izateko borondateaz hornituz.

2017ko urtarrilaren 19an, Euskararen Nafar Kontseiluak berretsi zuen Plan Estrategiko hori eta, azkenik, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen urte bereko urtarrilaren 25ean.

Nafarroako Gobernua oinarri horien gainean garatzen ari da hizkuntza politika, 2015eko uztailaz geroztik. Txosten honek, laugarren txostenak 2014-2016 aldirako planteatu duenari erantzuna eman ez ezik, agerian jartzen du Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean ezarritakoaren aldera begirunetsu jotzen duen hizkuntza politika baten garapena.

1.- Euskarak Nafarroan duen egoera eta hizkuntza politika berria.

1.1.- Euskarak Nafarroan gaur egun duen egoera.

2016an bi azterlan egin dira euskarak Nafarroan gaur egun duen egoerari buruz: Euskararen VI. Inkesta Soziolinguistikoa eta Hizkuntzen erabileraren VII. kale-neurketa.

- Euskararen VI. Inkesta Soziolinguistikoa

Euskararen VI. Inkesta Soziolinguistikoa batera egin zen elkarlanean ibiltzea adostu zutelako Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2016/07/22/Trabajos+VI+E+ncuesta+Sociolinguistica.htm

Nafarroako Foru Komunitateko egoera soziolinguistikoan finkaturik, inkestatik ateratzen diren datuak honela laburbil daitezke:

- Foru Komunitateko 16 urtetik goitiko biztanleetan, %12,9 elebidunak dira, %10,3% elebidun pasiboak eta %76,7 elebakar gaztelaniadunak. Biztanleria elebiduna goraka doa beti eta 69.000 lagun egiten du; 1991n 40.000 zeuden erroldaturik.
- Eremu euskalduna da euskaldun portzentaje handiena duena, %61,1. Eremu mistoan, euskaldunen portzentajea %11,3koa da. Euskaldunen portzentaje apalena eremu ez-euskaldunekoa da, %2,7.
- Elebitasun maila handiena gazteenen artean ikusten da: %62,6, 16tik 24 urte bitartekoen artean, hau da, 1991n halako 2,5; 25etik 34ko bitarteko tartean ere dira halako 2,5.

Ondoko grafikoetan ikusten dira inkestaren datu orokorrak:

<http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/NAF-Inkesta%202016%20euskaraz.pdf>


Euskararen ezagutzan errealitate desberdinak daude hizkuntza eremuen arabera. Lauki honetan ikus daiteke nola bilakatu den euskararen ezagutza, eremuen arabera, 2011ko eta 2016ko neurketak alderatuta:

	Eremu euskalduna (%)		Eremu mistoa (%)		Eremu ez-euskalduna (%)		Nafarroa (%)	
	2011	2016	2011	2016	2011	2016	2011	2016
Euskaldunak	59,3	61,1	9,8	11,3	2,3	2,7	11,7	12,9
Euskaldun pasiboak	12,6	13,4	9,6	12,0	3,1	6,8	7,5	10,3
Erdaldunak	28,1	25,5	80,6	76,8	94,6	90,5	80,8	76,7

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Ondoko taulan agertzen da nola bilakatu diren euskararen ezagutzaren portzentajeak azken 25 urtean:

Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Euskararen eremu osoa. 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Hizkuntzen erabileraren VII. kale-neurketa

VII Hizkuntzen erabileraren VII. kale-neurketa 2016an egin zen. Neurketa horretan oharrekin da ahozko euskararen erabileraren gorakada nabarmena karrikan, ondoko laukian ikusten den bezala:

Erabilera erregistratuaren bilakaera, adinaren arabera. Nafarroa

Erabileraren kale-neurketa	Erabilera Nafarroan, osotara	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2011	5,7	7,5	5,6	5,4	3,3
2016	6,7	8,6	6,6	6,6	3,9
Bilakaera	+1	+1,1	+1	+1,2	+0,6

Iturria: HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETA. EUSKAL HERRIA, 2016. SOZIOLOGIA KLUSTERRA.

Hizkuntzen erabileraren VII. kale-neurketa Nafarroako 32 udalerritan egin da (11 udalerrri gehiago 2011n baino). Laginean, guztira, 25.000 elkarrizketa egin dira eta 69.000 hiztun inguru erregistratu dira. Beraz, ikerketa zabala izan da, eskuratutako datuen indarra bermatzen duena. Laginaren errorea $\pm 0,3$ da, eta konfiantza maila, berriz, %95.

<http://www.soziolinguistika.eus/es/node/5841>

1.2.- Hizkuntza Politika berria

Mintzairen gainean hizkuntza politika berria egitera zuzendutako jarduketan artean azpimarratzekoak dira Gobernurako Programa-akordioa eta Euskararen I. Plan Estrategikoa.

- Programa-akordioa:

“2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NAFARROAKO GOBERNURAKO PROGRAMA-AKORDIOA” gauzatu zuten Nafarroako Gobernua sostengatzen duten alderdi politikoek

Akordio horren barnean, Hizkuntza Politikari eta Hezkuntzari dagozkionak azpimarratu ditugu:

HIZKUNTZA POLITIKAREN GAINKO AKORDIOAK:

- 1. Arauzko esparru egoki bat garatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.*
- 2. Euskararen legearen azken aldaketa garatzea eta nahi duten ikasle guztiek Nafarroa osoan D ereduan ikas dezaketela ziurtatzea.*
- 3. Hizkuntza-politikaz arduratzen den antolamendu-unitatea dagokion esparruan kokatzea, hizkuntza-politika zeharkakoa izan dadin eta departamentu guztien eta gobernu osoaren lana har dezan barnean.*
- 4. Ekitaldi publiko, harreman eta protokolozko ekitaldi guztietan eta, oro har, foru-erakunde publikoen irudi korporatiboan euskarak presentzia egokia izan dezan ziurtatzea.*
- 5. Komunikazio-estrategia berri bat aplikatzea, berritzailea eta integratzailea, euskarari prestigioa emateko gizartearen begietan eta gizartea euskara jakiteko eta erabiltzeko sentsibilizatzeke.*
- 6. Euskararen Kontseilua berritzea, gizartearen parte-hartze handiagoa izan dadin haren osaeran eta eskumen gehiago izan ditzan.*
- 7. Euskararen egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua egitea eta Euskararen Kontseiluak plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkor bat diseinatzea, Gobernuaren hizkuntza-politikaren oinarria finkatzeko.*

8. *Administrazioaren esparruan, herritarrei ahal bezainbat euskaraz erantzuten saiatzeko konpromisoa hartzea, haien hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Plantillaren diagnostikoa eta zirkuitu elebidunak abiaraztea.*
9. *Toki entitateekin lankidetzaren hitzarmena berpiztea, hizkuntza politika koordinatzeko eta optimizatzeko eta entitate publikoen arteko baliabideak partekatzeko asmoz. Udaletako euskara zerbitzuen sarea zabaltzea, egungo eskaerari eta etor daitekeenari erantzun beharrez.*
10. *Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko 2015eko kontu-saila berehala erabiltzea. Hainbat urtetarako lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea, euskaltegien egonkortasuna bermatzeko, azken urteetako murrizketak erremediatzeko eta euskaltegiek beren lana egiteko behar adinako finantzaketa-maila berreskuratzeko.*
11. *Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko zentro publikoek eskariari erantzuten diotela ziurtatzea.*
12. *Euskarazko komunikabideen eta euskara hein jakin batean erabiltzen dutenen finantzaketa lehengoratzeko eta hobetzea eta, horretarako, hitzarmenak eta laguntzak emateko deialdiak egitea.*
13. *Finantzaketa publikoa duten hedabideak programen ehuneko bat euskaraz ematera behartzea, deialdi bakoitzak finkatzen duen ratioaren arabera.*
14. *Nafarroako herritar guztiek euskarazko hedabideak erabili ahal izatea ziurtatzeko neurriak hartzea.*
15. *Plan Estrategikoaren esparruan, administrazioak berak kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren esparruan antolatzen dituen jardueretan euskarazko eskaintza nahikoa izan dadila bultzatzea eta toki-entitateek antolatzen dituztenak babestea.*
16. *Esparru sozioekonomikoan euskara erabil dadin bultzatzea eta enpresek eta beste entitate batzuek prestatzen dituzten euskara-planerako laguntza-lerro bat sortzea.*
17. *Euskara hein handi batean ikasten den eta oro har erabiltzen den lekuen funtzio estrategikoa aztertzea eta haren politika espezifikoak aplikatzeko aukera aztertzea.*
18. *Euskara aztertzen eta sustatzen diharduten erakunde, entitate publiko eta ekimen sozialeko erakundeekiko lankidetzaren normalizatzea eta hobetzea: EAE, Euskal Erakunde Publikoa Iparraldeko erakundea, Euskaltzaindia..*
19. *Hitzartutako neurri guztiek finantzaketa eta giza baliabide nahikoak izateko konpromisoa hartzea.*

https://www.navarra.es/home_eu/Gobierno+de+Navarra/Programa/

HEZKUNTZAREN GAINEKO AKORDIOAK

1. Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko Lege Organikoari uko egitea eta hura indargabetzearen alde egitea. Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko Lege Organikoaren garapenak geldiarazteko jarrera irmoa hartzea; betiere, segurtasun juridikoa bermatuta.

5. Eremu ez-euskalduneko ikastoletarako prozedura berezi bat diseinatzea, otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legea betetzeko (Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duena).

7. Otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legea (Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duena) garatzea eta aplikatzea, eskatzen duten ikasle guztiek D ereduan eskolatzeko eskubidea dutela ziurtatzeko.

8. Eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunetan D ereduan matrikulatzen diren ikasleei garraioa eta jantokia ordaintzeko laguntzak ematea, beren udalerrian eskaintzarik ez badute, eta beren eremuan eskaintza publikorik ez dagoelako nahitaez bidaiatu behar duten ikasleei, 2015-2016 ikasturtetik aurrera.

9. Ingelesa Ikasteko Programaren hedapena urtebetez atzeratzea gutxienez, egungo programa ebaluatzeko eta hizkuntzen trataera bateraturako plan berri bat diseinatzeko eta curriculumean sartzeko.

22. LHko hezkuntza-eskaintza aztertzea eta aldatzea eta euskarazko hezkuntza eskaintza handitzea, lurralde-egituraketa kontuan izanik. LH publikoa sustatzea, gizartearen beharrei erantzuteko, tokiko garapen-agentziekin, inguruko enpresekin, unibertsitatearekin eta hezkuntza-komunitatearekin elkarlanean. Pixkanaka, inbertsioak egitea, instalazio eta makina egokiakeskuratzeko. Egungo sistema (LH duala) sakonki aztertzearen alde egitea, prestakuntza eta laneratzea duinak izatearen ikuspegitik.

23. LHrako hizkuntza normalizaziorako Plan Estrategikoa diseinatzea.

Euskararen I. Plan Estrategikoa:



Nafarroako Gobernurako 2015-2019 legegintzaldirako aipatutako Programa-akordioan, hizkuntza politikari dagokion atalean agertzen da euskararen egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua egin beharra eta plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkor bat diseinatu beharra.

2016ko otsailaren 16an, Euskararen Nafar Kontseiluak oniritzia eman zien Euskararen Plan Estrategikoaren xedeei, baita hura prestatzeko metodologiari ere. Plan Estrategiko hau Euskarabideak zuzendutako prozesu baten emaitza da; 2016ko otsailean hasi zen, dokumentu

hau prestatzeko lehen urratsak eman zirelarik, eta 2017ko urtarrilean bukatu da. Prozesuaren lehen faseak ondoko eskeman agertzen dira:

Nafarroako Gobernuak 2017ko urtarrilaren 5ean onetsi zuen Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019); hura ezarrita, erantzun egokia eman nahi zaio euskara jakiteko eta erabiltzeko herritarrak duen eskubideari.

Planak Nafarroan hizkuntza politika berri bat gauzatzeko konpromisoak biltzen ditu. Mahai teknikoak sortu ziren, gizartetik etorritako parte-hartzaileekin, eta egoeraren diagnostikoa egin zen.

Euskarak Nafarroan duen egoera agertzen da dokumentuan: datu demografiko eta demolinguitikoak, AMIA analisia (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) eta 7 ardatz estrategiko, xede eta ekintza markatu zituen, eremu hauetarako:

1. Gizarte erabilera
2. Hiztun berriak
3. Zerbitzu publikoak
4. Prestigioa eta erakargarritasuna
5. Ekonomia eragilea
6. Hizkuntza esparrua
7. Euskarabidearen barne kudeaketa

Guztira, **190 ekintza** dira, 2016-2019 aldian garatzeko.

Ikusten denez, Plan Estrategikoaren 6. ardatzaren gaia Hizkuntza esparrua da. Programa-akordioarekin bat araudi bat garatu nahi da plan horren xedeak betetzeko, hizkuntza eskubideak babesteko eta euskararen sustapena garatuko duen hizkuntza politika laguntzeko aukera emanen duena. Horiez gain, bertze erakunde batzuekiko elkarlanean sakontzea eta hizkuntza plangintzarako datu soziolinguitikoak, orokorrak nahiz sektorialak, aldian behin eskuratzea.

<http://www.euskarabidea.es/euskara/lan-lerroak/plan-estrategikoa>



Euskararen plan estrategikoaren ardatzak (2016-2019)
Iturria: Euskarabidea

Urtean behin jarraipen txosten bat egingen da. Bertan zehaztuko da zein den proiektuaren gauzatze egoera, egindako lanaren gainean kontu emateko, bai barrura begira (Euskarabideko Gobernu Kontseilua), bai kanpora begira (Euskararen Nafar Kontseilua) zein oro har herritarrei begira (Gardentasunaren Ataria)

Plana prestatzeko prozesu guztian zehar, une oro, gogoan izan da Plana diseinatzeko eta gauzatzeko tenorean ebaluazioa barne hartu behar zela. Ekintzen gauzatze mailaren jarraipen operatibotik harago (epeak, mugarrak, kostua, etab.), funtsezkoa da politika publiko hau ezartzeko prozesu guztian erdietsitako emaitzak eta eragina ebaluatzea.

Aginte-taula bat ezarri da, 19 adierazle dituen, hain zuzen ere guztien artean eragin eta garrantzi handienekoak eta alderatzen dituztenak hizkuntzaren egungo egoera eta 2019an planaren iraunaldiaren akabantzan lortu nahi den xedea. Epe ertain eta luzean, adierazleek balioko dute baloratzeko planean zehazturiko estrategiak xede estrategikoen lorpenean zuzenean eragiten ote duen eta, azken batez, zer errealitate soziolinguistikoaren gainean ekin nahi den, hartan aldaketarik sorrarazten ote duen. Jarraipena eta ebaluazioa egiteko proposatzen den sistema malgua da eta prozesuak irauten duen bitartean adierazle gehiago sartuko dira, jadanik daudenak fintzeko eta hobetzeko.

Plan Estrategikoaren laburpen exekutiboa bideo honetan ikusten da:

<https://vimeo.com/200947288>

1.3.–Berritasunak araudian

Atal honetan 2014tik aitzina legerian hartutako neurrien berri eman da.

1.3.1. Foru legeak:

- **Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duen 4/2015 Foru Legea**

Eremu ez-euskaldunean, euskarazko irakaskuntzari eremu mistokoaren antzeko estatusa eman dio aldaketak. Praktikan, aukera ematen du **D eredia sartzeko eremu ez-euskalduneko eskola publikoetan.**

26. artikulua (eremu ez-euskalduneko hezkuntzari buruzkoa) honela gelditu da idatzirik:

“26. artikulua.

1. Euskara irakaskuntzan sartuko da pixkanaka-pixkanaka, progresiboki eta nahikotasunez, egun dauden ikastetxe publikoetan euskaraz irakasten duten lerroak sortuz eskariaren arabera.

2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara irakatsiko zaie eskaera egiten duten ikasle guztiei, halako moduan non euskararen ezagutza nahikoa izan ahalko baitute eskolatzearen bukaeran.

3. Eskariari sare publikoan erantzun ahal izan dakion, honako gutxienerako ikasle kopuru hau hartuko da aintzat: eskola-unitate bat taxutze aldera Hezkuntza Administrazioak irizpide objektiboek jarraituz ezein irakaskuntza-eredutan baliatutakoa”.

Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 30eko 41/2016 Foru Aginduak gutxienerako ikasle-ratioa ezartzen du eremu ez euskalduneko ikastetxe publikoetan D ereduko unitate bat irekitzeko.


- **9/2017 Foru Legea, ekainaren 27koa, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatzen dituena.**

2015ean eta 2016an zenbait toki administrazioek eskatu diote Nafarroako Parlamentuari legearen arabera zegokien ez bezalako hizkuntza eremuan sar zitzatela, beren biztanleen hizkuntza eskubideak handitu beharrez.

Aldaketa osoko bilkuran onetsi da, 2017ko ekainaren 22an, eta gisa horretara posible egin da Legearen beraren izena aldatzea, eta 45 udalerrri eremuz aldatzea.

Hain zuzen ere, Atezko udalerrria pasatu da eremu mistotik **eremu euskaldunera**, eta gainerako 44 udalerrriak pasatu dira eremu ez-euskaldunetik **eremu mistora** (haien izenak jaso dira izendapen ofizialaren arabera): Abáigar, Adiós, Aibar / Oibar, Allín / Allin, Améscoa Baja, Ancín / Antzin, Añorbe, Aranarache / Aranaratxe, Arellano, Artazu, Bargota, Beriáin, Biurrun-Olcoz, Cabredo, Cirauqui / Zirauki, Dicastillo, Enériz / Eneritz, Eulate, Gallués / Galoze, Garínoain,

Izagaondoa, Larraona, Leoz / Leotz, Lerga, Lónguida / Longida, Mendigorria, Metauten, Mirafuentes, Murieta, Nazar, Obanos, Olite / Erriberri, Oteiza, Pueyo, Tafalla, Tiebas-Muruarte de Reta, Tirapu, Ujué / Uxue, Unzué / Untzue, Urrúl Bajoi, Urroz Villa, Villatuerta, Sangüesa / Zangoza eta Zúñiga.



- Berde argian eremu euskalduna agertzen da
- Berde ilunean eremu horretara pasatzen den udalerrria
- Horiz eremu mistoa
- Laranja, eremu mistora pasatzen diren 44 udalerrriak
- Morez, eremu ez-euskalduneko udalerrriak
- Grisez, mendiak eta eremu babestuak
-

Gainera, gogoan izan behar da Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 23ko 2/2010 Foru Legearen ondorioz, baimena ematen zaiola Noain-Elortzibarko udalerriri eremu mistora modu automatikoan pasatzeko, haren Udalbatzak erabakitzen duenean, bere ordezkarien gehiengoa bat etorruta.

1.3.2. Foru Dekretuak:

- 67/2014 FORU DEKRETUA, abuztuaren 27koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hizkuntza ikasketen C1 mailarako curriculuma ezartzen duena Nafarroako Foru Komunitatean.

[67/2014 FORU DEKRETUA, ABUZTUAREN 27KOA](#)

- 26/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 29koa, A1, A2, B1 eta B2 euskara mailak egiaztatzeko ziurtagiri ofizialak sortzen dituena eta haiek jaulkitzeko arauak ematen dituena.

[92. ALDIZKARIA - 2015eko maiatzaren 14koa](#)

- 130/2015 FORU DEKRETUA, abuztuaren 28koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena.

[170. ALDIZKARIA - 2015eko abuztuaren 31koa - BEREZIA](#)

- 4/2016 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 27koa, Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituena, izanik ele biko izendapena sinbolo ofizial horretan agertu behar dena.

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2016/29/Anuncio-1/

1.3.3. Arauen proiektuak:

- **Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Foru Dekretuaren proiektua.**

2016an prestatu hurrengo batean onetsiko den Foru Dekretuak euskararen erabilera arautuko du Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta mendeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan.

Araudi berria parte-hartze prozesu garrantzitsu baten baitan prestatu da, herritarren, Funtzio Publikoko sindikatuen, Nafarroako Gobernuko departamentuen eta toki entitateen iritziak aintzat hartuta. Gainera, proiektuak Euskararen Nafar Kontseiluaren aldeko txostena du.

Proiektua posibilista da, indarrean den araudiaren baitan, eta indargunea herritarrengan eta herritarren hizkuntza eskubideen errespetuan ezartzen du, aldi berean bermatzen dituelarik herritarren eskubideak eta langile publikoek eskuratutako eskubideak. Era berean, dekretua prestatu da toki entitateen eskumenak errespetatuz.

Bertzetik, arauak hizkuntza eskubideak bermatzeko irizpideak ezartzen ditu, administrazioaren barne baliabideak eraginkortasunez kudeatuz; izan ere, B2 edo C1 mailaren jabe diren milatik gora funtzionario ditu administrazioak.

Dekretuaren arabera, departamentuek lanpostu eta zirkuitu elebidunen gaineko beren plangintza egin beharko dute. Plangintza horiek, Nafarroako Gobernuak onetsi aurretik, mahai sindikalekin negoziatuko dira.

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2017/05/24/se+remite+decreto+euskera+al+Consejo+de+Navarra.htm

Honela dio Dekretuak:

Bereziki kontuan hartu dira Europako Gutun horretan agintari administratiboen eta zerbitzu publikoen gainean 10. artikuluan bildutako konpromisoak. Era berean, kontuan hartu dira gutun horren betetze-mailaren ezarpena jarraitzeko prozesuan Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak 2005., 2008., 2012. eta 2016. urteetako aldizkako txostenetan emandako gomendioak. Gomendio horien artean bereziki aipatzekoak dira, batetik, 2005eko irailaren 21ean onetsitako gomendioen arteko 5. puntua –puntu horretan esaten da gutunaren III. zatiak euskarari ematen dion babesak Nafarroako eremu mistoan modu egokian aplikatzeko aukera kontuan izan behar dutela agintariak–, eta, bestetik, 2016ko urtarrilaren 20an onetsitako gomendioen arteko 4. puntua –puntu horretan eskatzen da zerbitzu publikoetan hizkuntza koofizialen presentzia bermatzeko neurriak hartzen jarraitu behar dela, bereziki osasun zerbitzuetan–.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrik gabe geldituko dira foru dekretu honetan xedatutakoaren kontra dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, berariaz, honako hauek:

- 29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena.
- 203/2001 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa. Agertzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasleenak kanpo direla) eta zer jakite-maila behar duten, eta zehazten du zein lanpostutan hartu behar den euskara jakitea beste batzuen arteko merezimendutzat.
- 55/2009 Foru Dekretua, ekainaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautzen duena, bai eta haren babesean garatutako araudia ere.
- 2006ko irailaren 18ko Erabakia, euskarari buruzko zenbait neurri hartzen dituena,

- **Izen elebidun ofizialak erabiltzeko eta grafikoki adierazteko irizpideak ezartzen dituen foru dekretuaren proiektua.**

Foru dekretu batek arautuko du Nafarroako herriguneeen izen elebidun ofizialak erabiltzeko eta grafikoki adierazteko irizpideen ezarpena

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/foru-dekretuaren-proiektua-nafarroako-herriguneeen-izen-elebidun-ofizialak>

Udalek erabakitzen ahalko dute beren izena euskaraz edo gaztelaniaz den. Dekretu batek bidea emanen dio ele biko izenari, Euskaltzaindiak onartua bada.

- **130/2015 Foru Dekretua Euskararen Nafar Kontseiluaren osaerari dagokionez aldatzen duen Foru Dekretuaren proiektua**

Bidean dago titulu hori aldatzeko Foru Dekretua, 2017ko abuztuan onetsi nahi dena, eta ondoko berritasun nagusiak ekarriko dituen:

- Kontseiluak 22 kideetik 35era pasatuko da.
- Lana batzordeen bidez bultzatuko da; horiek proposamenak eginen dizkiote osoko bilkurari.

2. Euskara babesteko neurriak

Adituen Batzordeak Europako Gutunari buruz egindako jarraipenaren ebaluazioan, II. zatiaz den bezainbatean, zehatz-mehatz, 7. artikularen 1. paragrafoko c) puntuaz (“eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak sustatzeko ekintza seguru baten beharra, hizkuntzok babestearren”) iruzkin bat egiten da: Euskarabideari osotara esleituriko aurrekontua, krisi ekonomikoaren eraginak kontuan harturik ere, azkar doa behera, eta horrek ondorio kaltegarriak ekartzen ahal dizkie euskararen babesari eta sustapenari Nafarroan.

Horregatik, puntu hauen ekarpena egin da:

2.1.- Euskarabidea/ Euskararen Nafar Institutua

1.3.3. puntuan adierazi bezala, Euskarabidea/ Euskararen Nafar Institutuak bere egitura eta eginkizunak sendotu ditu Erakunde autonomoaren Estatutuak onesten dituen abuztuaren 28ko 130/2015 FORU DEKRETUaren bidez.

[170. ALDIZKARIA - 2015eko abuztuaren 31koa - BEREZIA](#)

Behar diren baliabideen hornidurari dagokionez, norabidea Europako Kontseiluak egindako gomendioen ildokoa da jadanik. Hain juxtu ere, azken txosten horretan, nahiz eta kontuan hartu krisi ekonomikoaren ondorioak, Adituen Batzordeak ohartarazi du Euskarabidearen aurrekontu osoa nabarmen urritu dela azken urteotan eta horrek kalte egin diezaiokeela, Nafarroan, euskararen babesari eta sustapenari. Alde horretatik, Gobernuak, berrikitan onetsitako aurrekontuetan, Euskarabidearendako baliabideak hobetzen hasi da, egoera ekonomikoak bidea ematen duen heinean.

Hartara, Euskarabidea lanean ari da jada, egoera zuzentzen, txostenean aipatu eta Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak onetsitako gomendioei jarraikiz.

Euskarabidearen aurrekontu egikaritua:

Urtea	Euskarabidearen aurrekontua	Hedabideendako diru-laguntza	Helduei euskaraz irakasteko diru-laguntza	Udalendako diru-laguntza	Irabazi asmorik gabeko elkarteendako diru-laguntza	Merkataritza eta enpresarendako diru-laguntza
2014	2.138.251	0	0	140.814,41	0	0
2015	2.178.602	*66.000,00	**129.077,66	146.838,56	0	0
2016	4.233.220	290.000,00	392.224,51	282.255,20	101.719,65	0
2017	6.224.644	500.080,00	700.000,00	650.000,00	250.000,00	60.000,00

Iturria: Euskarabidea.

* 2015ean ez zen laguntza deialdirik izan; ikus-entzunezkoen ekoizpenerako eman ziren.

** Helduei euskaraz irakasteko 2015eko urritik abendura bitarteko diru-laguntzak.

Aurrekontu egikaritua, kontu-sailen arabera:

Euskarabidea 2016:

Hemen zehatzago ikusten da Euskarabideak 2016an izan zuen aurrekontua:

KAPITULUAK	B30000	B30001	B30002	GUZTIRA
	Programaren jarduera orokorrak	Hizkuntza baliabideak	Euskararen sustapena eta plangintza	
PLANTILLA	890.879	1.253.273	464.556	2.608.708
ONDASUN ETA ZERBITZUAK	73.658	36.321	232.377	342.356
TRANSFERENTZIAK	97.620	400.010	720.000	1.217.630
INBERTSIOAK	6.010	0	58.516	64.526
GUZTIRA	1.068.167	1.689.604	1.475.449	4.233.220

Iturria: Euskarabidea

Hona Euskarabidearen 2017ko aurrekontua, 2016an onetsia:

KAPITULUAK	B30000	B30001	B30002	GUZTIRA
	Programaren jarduera orokorrak	Hizkuntza baliabideak	Euskararen sustapena eta plangintza	
PLANTILLA	1.133.993,00	1.260.845,00	499.717,00	2.894.555,00
ONDASUN ETA ZERBITZUAK	91.974,00	110.926,00	472.252,00	675.152,00
TRANSFERENTZIAK	150.520,00	700.010,00	1.600.000,00	2.450.530,00
INBERTSIOAK	27.042,00	0,00	177.365,00	204.407,00
GUZTIRA	1.403.529,00	2.071.781,00	2.749.334,00	6.224.644,00

Iturria: Euskarabidea

2.2.- Euskararen Nafar Kontseilua

Arestian aipatu 130/2015 Foru Dekretaren 24. artikuluan arautzen zen Euskararen Nafar Kontseilua.

24. artikulua. Euskararen Nafar Kontseilua.

Euskararen Nafar Kontseilua Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren parte-hartze organoa da eta, euskararen plangintzan eta sustapenean, Nafarroako Gobernuari aholkuak eman eta proposamenak egiten dizkio.

1.3.3 puntuan adierazi bezala, bidean dago titulu hori aldatzeko Foru Dekretua, 2017ko abuztuan onetsi nahi dena, eta ondoko berritasun nagusiak ekarriko dituena:

- Kontseilua 22 kidetik 35era pasatuko da.

- Lana batzordeen bidez egingen da; horiek proposamenak egingen dizkiote osoko bilkurari.

2.3.- Lankidetzaren hitzarmenak

Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena

Hitzarmenaren helburua da Euskaltzaindiarekiko lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzea — aginduzko txostenetarako eta aholkularitzarako— Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskaltzaindiaren artean, eta sinatzaileek beren gain hartzen dituzten konpromisoen esparrua arautzea, Euskaltzaindiak, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, duen jarduna ahalbidetze aldera.

Hona hemen laguntzen zenbatekoak:

- 2014. urtea: 80.000 €
- 2015. urtea: 80.000 €
- 2016. urtea: 96.100 €
- 2017. urtea: 149.000 €

Euskarabidearen eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmena

Hitzarmenaren helburua da lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzea Euskarabidearen eta Eusko Ikaskuntzaren artean, eta sinatzaileek beren gain hartzen dituzten konpromisoen esparrua arautzea, Eusko Ikaskuntzak, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, duen jarduna ahalbidetze aldera, baita izaera orokorrekoak ere, Eusko Ikaskuntzaren funtzionamendu egokirako.

- 2014. urtea: 0 €
- 2015. urtea: 0 €
- 2016. urtea: 20.000 €
- 2017. urtea: 40.000 €

2.4.- Hizkuntzaren esparruko harremanak

II. zatiari dagokionez (7. artikulua, 1. paragrafoa, e) puntua), hona zer dioen Europako Gutunak: “Gutun honek hartzen dituen esparruetan, harremanak sortu eta garatzea eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza erabiltzen duten taldeen eta Estatu berean hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten beste talde batzuen artean, bai eta kultur harremanak sortzea beste hizkuntza batzuek erabiltzen dituzten Estatuko beste talde batzuekin ere”

Hizkuntzaren esparruko harremanen alorrean, aipatzekoak dira Euskadiko Autonomia Erkidegoarekin eta Ipar Euskal Herriarekin sinaturiko akordio eta lankidetzarako protokoloak, Euskararen Adierazle Sistema, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearekikoak, hizkuntza politika alorrean lankidetzan aritzeko protokoloa eta Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarea (NPLD).

- **Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea**

2016ko martxoaren 18an, Euroeskualdeak Gasteizen egindako batzarrean, Akitaniak eta Euskadik erabaki zuten Nafarroako Foru Komunitatearen atxikimendu eskaera onartzea.

[Nafarroako Gobernuaren 2016ko apirilaren 6ko ERABAKIA](#)ren bidez, onesten dira Nafarroako Foru Komunitatea "Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdea" Lurralde Lankidetzarako Europako Elkarteari atxikitze aurreikusitako hitzarmenaren eta estatutuen proposamenak.

2017ko apirilean Nafarroako euroeskualdean sartu zen, eta hartan buru egingen du 2018an eta 2019an.

Batzuk aipatzearen, honako jarduera hauek ekartzen dira:

–Kulturaren eta artearen dinamika sendotzea eta, bereziki, euskara eta euskal kultura sustatzea, sorkuntza horren adierazpenetan integratutako dimentsio berri baten bitartez.

- **Euskal Autonomia Erkidegoarekiko harremanak.**

Arestian aipatu jarraipen txostenean Adituen Batzordeari Euskadiko eta Nafarroako gobernuek euskararen alde egindako akordioaren berri eman zitzaionez, agintariei eskatzen zitzaaien argibide gehiago emateko haren edukiaren gainean.

2012ko uztailaren 5ean, lankidetzaren hitzarmena sinatu zen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Kontseilaritzaren artean. Akordio hori ez da gero garatu.

<http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/ejrekin-lankidetzaren-hitzarmena.pdf>

2016ko maiatzaren 4an, Nafarroako Gobernuak lankidetzaren protokolo orokorra sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin. Akordio horrek zabaldu zuen bi gobernuek 2009ko uztailaren 3an sinaturiko lankidetzaren protokoloa.

18 lankidetzaren eremu jaso ziren. Hizkuntza politikari buruzkoan, bi gobernuek adosten dute beharrezkoa dela harremanak ezartzearen alde egitea, bien adostasunez elkarlanean aritzeko arlo hauetan: helduentzako euskalduntzea; euskarazko hizkuntza gaitasunen ebaluazioa eta egiaztatzea; euskararen errealitate soziolinguistikokoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ikerketak eta azterlanak; euskara-gaztelania eta alderantzizko itzulpen-gintzaren arloan esperientziak partekatzea, baita terminologian ere; informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatzen elkarrekin aritzea; euskararen nazioarteko zabalkunderako programak sustatzea; euskararen kultur eta gizarte mailako plangintza eta sustapenean elkarrekin lan egitea eta esperientziak partekatzea..

Akordio eta protokoloen edukiaren aplikazioaz den bezainbatean, ondoko xehetasunak eman behar ditugu:

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera eginen dira euskararen ezagutzaren ziurtagiriak. Beren ziurtagiri sistemak desberdinak izanik ere, bi administrazioek beren ziurtagiriak aitortuta dauzkate Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren erreferentzian.

Ikerketa soziolinguistikoei dagokienez, lankidetzan ibili dira Euskararen Inkesta Soziolinguistikoa egiten; haren datu orokorrak 2016koak dira eta 1.1. puntuari adierazi dira, euskararen egoerari buruzkoa baita.

Bertze alderdi batzuetan ere abiatu da lankidetzaren, hala nola informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, lan koordinatua egin nahi baita alor horretan, hain garrantzitsua izanik.

- **Hitzarmen berariazkoa EAEarekin eta Ipar Euskal Herriarekin.**

2017ko uztailaren 3an lankidetzarako hitzarmen berariazkoa formalizatu zen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Euskararen Erakunde Publikoaren eta Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren artean. Izatez, lankidetzaren lehenagotik zetorren hainbat proiektutan: Euskararen VI. Inkesta Soziolinguistikoa, Euskararen Adierazle Sistema, POCTEFAREN finantzabidea duena, edo Frantziako hezkuntza sisteman euskarazko irakaskuntza ematen duten irakasleak prestatzeko programa, Europako dirua ere daukana. Beraz, hitzarmen berariazkoak egin zuten lankidetzaren hori formalizatu; horrexegatik aipatzen da txosten honetan.

Hiru lurraldeetan euskara bultzatzeko hitzarmen berariazkoa sinatu zuten, Nafarroako Jauregian, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok,

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiriak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoko lehendakari Mathieu Bergék.

Hitzarmenak elkarrekiko lankidetzaren hautua egiten du bikoiztasunak eta behar ez diren gastuak saihesteko eta ahalik eta efizientziarik handiena lortzeko, eta lankidetzaren harremanak hertsatzen ditu Akitania-Euskadi-Nafarroako Euroeskualdeak martxoaz geroztik Nafarroari eskaintzen dizkionak.

Helduendako euskararen hezkuntza eta irakaskuntzari dagokionez, bertzeak bertze hauek sustatuko dira: irakasleen eta ikasleen mugikortasuna eta trukatzeko, helduendako irakaskuntza-curriculumaren garatzea eta irakasleen berariazko prestakuntza.

Hiru lurraldeek hizkuntza gaitasun mailak ebaluatzeko probak eta sistemak ere prestatuko dituzte. Horrez gain, hirurek emandako tituluak elkarri aintzatetsiko dizkiote.

Bertzalde, betiere lurralde bakoitzeko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta, elkarri trukatuko dizkiote **euskara** aisialdian, ingurune digitalean eta aisialdian **sustatzeko** ezagutzak eta tresnak.

Hitzarmenak **euskararen eta gogoeta eremuen sustapena** ere barne hartzen du, hiru alderdiek koordinatutako sustapen programen bidez eta gogoeta egiteko eta ezagutzak partekatze eremuak sortuz.

Hitzarmenaren ondorioz, hiru alderdiak lankidetzan ibiliko dira, orobat, egindako **ikerketari soziolinguistiko**en barnean lortutako eta bildutako datuak bateratzen. Aldi berean, bertze ikerketa-bide batzuk proposatuko dituzte, euskararen egoera zein den jakiteko.

Azkenik, harreman estua ere aurreikusten du hitzarmenak, **Europako finantzabideek** eta POCTEFA programa berriek hizkuntza-politikaren erronkak kontuan har ditzaten.

- **Euskararen adierazle sistema**

Nafarroako Gobernuaren 2016ko otsailaren 4ko ERABAKIaren bidez onetsi zen Euskararen Adierazle Sistema (EAS) Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Hitzarmena. Xedetzat du euskararen egoera sozialari eta bizindarrari buruzko informazio kuantitatiboa jasotzea, antolatzea, eta zabaltzea.

Euskararen lurralde guztietako erakundeek osaturik dago EASko Sustapen Batzordea: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Gobernuaren, Euskararen Erakunde Publikoa eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak. Aipatu erakundeez landa, EASko Batzorde Teknikoan honako hauek parte hartzen dute: Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetza, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, HABE, Paueko Unibertsitatea (Université de Pau et des Pays de l'Adour), Bordeleko Unibertsitatea (Université

Bordeaux Montaigne), Euskaltzaleen Topagunea, Mondragon Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza, Deustuko Unibertsitatea eta ISEI-IVEI.

Proiektu hau sarturik dago Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Europako programaren esparruan (POCTEFA), eta xedea du adierazle sistema eraginkorra, malgua eta fidagarria eraikitzea, bertzeak bertze euskararen ezagutzari, erabilerari eta haren inguruko jarrerei buruzko datuak modu sistematikoan biltzeko aukera emanen duena. Orobat, posible egingen du euskararen egoera eta bilakaera soziala ezagutzeko, etengabe elikatu eta eguneratuko da eta alderatzeko aukera emanen du.

Gaur egun, Euskararen Adierazle Sistema osatzen duten adierazle nagusiak identifikatu dira, 30 guztira, zenbait alor harrapatzen dituztenak: datu soziolinguistikoak (euskararen ezagutza eta erabilera), familia, hezkuntza, helduen irakaskuntza, administrazioa eta oinarrizko zerbitzuak, sozio-ekonomia, kultura, hedabideak, IKTak eta harreman informalak eta aisialdia.

- **Hizkuntza politikaren arloko lankidetzaren protokoloa**

2017ko martxoaren 29an, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateak, Galizako Xuntak eta Balear Uharteetako Gobernuak hizkuntza politikaren arloan 2007ko martxoaren 16an izenpetutako lankidetzaren protokolo orokorrari atxikitzea. Aitzinetik, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak lankidetzaren protokolorako atxikimendua eskatu zuten 2016ko maiatzaren 14an, zenbait erkidegotako hizkuntza politikaren arduradun nagusiak Valentzian bildu zituen mintegian.

Protokoloaren alderdi sinatzaileek beren gogoia adierazi dute hizkuntza politikaren arloan elkarrekiko lankidetzaren esparru orokorra eta metodologia finkatzeko.

Espresuki, informazioa trukatu dute alor hauei buruzko metodologia, lan prozesu eta irizpideei buruz:

- soziolinguistika
- argitalpen elektronikoak
- hizkuntza eskubideak
- hizkuntza planak
- programen ebaluazioa
- terminologia

Gainera, neurri eta arau mailako ekintza hauek bulkatuko dituzte:

Estatuko eta EBko administrazioen esparruan, Estatuak eta EBk araudi ekintza eta neurriak har ditzaten sustatuko dute, gaztelaniaz bertzeko hizkuntza ofizialen erabilera

ahalbidetzeko Kongresuan eta Senatuan, Justizia Administrazioan edo Estatuko sozietateetan, eta gainera neurriak sustatuko dituzte Estatuko erakundeek hizkuntza hauek normalizatzearen aldeko politika aktiboak bulka ditzaten.

Alor sozioekonomikoan: argitalpen eta ikerlan ofizialen aleak trukatu dira, baita lege, erregelamendu eta arau mailako xedapenei buruzkoak ere.

Eta, gainera, alor hauek bulkatu dira:

- Irakaskuntza
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
- Hizkuntzaren erabilera soziala
- Nazioarteko hedapena.

<http://www.euskarabidea.es/euskara/albisteak/euskadi-katalunia-galizia-eta-balearrekin-bat-egin-du-nafarroak-hizkuntza-politikari-dagokionez>

- **Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarea (NPLD).**

[Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen](#) xedea da Europako herritarrak eta erakundeak sentibilizatzea hizkuntza aniztasunak duen garrantziari buruz; Nafarroako Gobernuak eskubide osoko kidea du.

Bertzeak bertze, ondoko herrialdeek parte hartzen dute: Britainia (Frantzia), Katalunia, Korsika (Frantzia), Estonia, Finlandia, Frisia (Herbehereak), Gales (Erresuma Batua), Galizia, Irlanda eta Euskal Autonomia Erkidegoa. Halaber, esparru honetan lanean ari diren hogeita bat elkarte eta GKE ere sareko partaide dira.

NPLDak Europako hizkuntza aniztasunerako BIDE ORRIA ezarri du 2015ean, proposamen hauekin:

Etorkizunari begira

Europar zergatik babestu beharko da hizkuntza aniztasuna?

1. Europar Batasunak eleaniztasunaren aldeko politika inklusiboa bereganatzeko, Europar hitz egiten diren mintzaira guztiek beren lekua izan dezaten.

Europar Batasunak/erakundeek behar lukete:

- Europako hizkuntzei laguntza eta ikusgarritasuna eman, ahalik eta aintzateste handienaren bidez.
- Eleaniztasunaren ekitatezko ikuspegia hartu, Europako hizkuntza guztiek EBaren proiektu eta ekimenetan parte hartu ahal dezaten.

2. Hizkuntzek lehen mailako eginkizuna izan dezaten gizarte kohesiorako eta garapen pertsonal eta ekonomikorako eta mugikortasun profesionalerako

Europar Batasunak/erakundeek behar lukete:

- Hizkuntza guztiak sartu toki, eskualde, nazio eta nazioarte mailako ekonomietan hazkundera eta lehiakortasuna pizteko eta enplegua sortzeko EBaren estrategian.
- Mintzairak sustatu mugikortasun mota desberdinetarako: nazioarteko mugikortasunerako, zeinean lingua franca delakoek eta nazioarteko hizkuntzek zeregin erabakigarria izaten ahal duten, eta eskualdeko edo mugaz gaindiko mugikortasunerako, zeinean eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzek balio erantsi handia izaten ahal duten.
- Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatu esparru sozioekonomikoan eta sektore pribatuan, zehatz-mehatz kontsumoaren alorrean.

3. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) erabil daitezzen hizkuntzen irakaskuntzaren alde eta horiek guztiak sustatzen eta indartzen.

Europar Batasunak/erakundeek behar lukete:

- Segurtatu hizkuntza komunitate guztiek, zein den ere haien hiztun kopurua, parte hartzen dutela IKTekin ikusteko duten ekimen europarretan.

4. Eskualdeetako, eremu urriko edo galtzeko zorian dauden hizkuntzei, hau da, Europako hizkuntza ahulenei laguntza emateko.

Europar Batasunak/erakundeek behar lukete:

- Estatu kideak gonbidatu ofizialtasun estatusa, sostengua eta bultzada eman diezaieten Europako eskualdeetako hizkuntzei, eremu urrikoei edo desagertzeko arriskuan daudenei.
- Estatu Kideren bateko lurraldearen zati batean ofizialtasuna duten hizkuntzek Europar Batasuneko hizkuntza ofizial gisa aitortzeko aukera bultzatu, ahal den neurrian eta betiere horrela eskatuz gero.
- Europako eskualdeetako hizkuntzen, eremu urrikoen edo desagertzeko arriskuan daudenen aldeko ikusgaitasun eta sostengu neurriak hartu, eta horiek kontinenteko hazkunde eta oparotasunaren kontakizun berrian sartu.
- Europako Kontseiluarekin estuki lan egitea Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren eragina handitzeko eta EBko estatu guztiek Gutuna sinatzen eta berresten dutela segurtatzeko, beren jurisdikzioetan xedatutakoari jarraikiz.
- Sostengu ematea hizkuntza eskubideak Europako Oinarrizko Eskubideen Gutunean sartzei.

3. Hezkuntza

3.1. Hezkuntza politika.

Atal honetan lau kontu aztertuko ditugu: Nafarroako ereduaren arabera eskolatzeko datuak, euskarazko irakaskuntzaren eskaintza berria eremu euskaldunean, Eredu aldatetegi buruzko 89/2010 Foru Agindua eta Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko 8/2013 Foru Legea.

- Nafarroako ereduaren arabera eskolatzeko datuak

Nafarroako hezkuntza sistemak hizkuntza eredu hauek eskaintzen ditu:

A eredu: irakaskuntza gaztelaniaz eta euskara irakasgai.

B eredu: euskarazko irakaskuntza, eta gaztelania irakasgai, baita irakas-hizkuntza ere irakasgai batean edo gehiagotan, ikasketen, zikloaren edo etaparen arabera..

D eredu: irakaskuntza euskaraz, gaztelania irakasgai izan ezik.

G eredu: irakaskuntza gaztelaniaz, euskarazko edo euskararen irakaskuntzarik gabe.

Gainera, ingelesa modu trinkoan ikasteko programa eskaintzen du (British-TIL-PAI). Asteko 28 eskola-saioretatik ikasleak 10 hartzen ditu ingelesezko murgiltze ereduaren.


Hona hemen Nafarroako eskolatzeko datu osoak, 3tik 18 urtera bitarteko adin tartean, 2015-2016 ikasturtean:

129. Taula: Eskolatzeko datuak: A+B+D euskarazko ereduak eta G gaztelaniaz. 2015-2016

	G eredu		A eredu		B eredu		D eredu		Ikasle
	ikasle	%	ikasle	%	ikasle	%	ikasle	%	
Haur Hezk	10.034	50,37%	4.356	21,87%	56	0,28%	5.475	27,48%	19.921
Lehen Hezk	21.497	52,65%	8.193	20,07%	125	0,31%	11.017	26,98%	40.832
D.B.H.	17.092	65,47%	2.418	9,26%	34	0,13%	6.564	25,14%	26.108
Batxilergoa	6.494	72,30%	402	4,48%			2.086	23,22%	8.982
LH Zikloak	7.797	97,41%					207	2,59%	8.004
LH oinar	819	100,00%							819
Oso-tara	63.733	60,89	15.369	14,68	215	0,21	25.349	24,22	104.666

Iturria: Eskolarizazioaren Informazioa Kudeatzeko Bulegoa

Hona hemen ereduaren eskolatzeko datuen bilakaera, 3tik 12 urtera bitarteko adin tartean:



Iturria: Aldasoro, E.

- **Euskarazko irakaskuntza eremu euskaldunean**

1.3.3 puntuan adierazi bezala, 2015eko martxoaren 10ean, Nafarroako Foru Komunitateko Aldizkari Ofizialak argitara eman zuen 4/2015 Foru Legea, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea aldatzen duena. Eremu ez-euskaldunean, euskarazko irakaskuntzari eremu mistokoaren antzeko estatusa eman dio aldaketak. Praktikan, aukera ematen du **D eredia sartzeko eremu ez-euskalduneko eskola publikoetan.**

https://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/47/Anuncio-0/

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/81/Anuncio-0/

Adituen Batzordeak agintariak zoriondu ditu horregatik. Hala ere, Adituen Batzordeak horren berri berandu izan duenez, ez du txosten honetan iruzkinduko, eta kontuari hurrengo jarraipen zikloan helduko dio.



D hizkuntza ereduan irakaskuntza osorik euskaraz ematen da, gaztelaniako irakasgaia izan ezik.

D eredia eskaera aski izanez gero ezarriko da eremu ez-euskalduneko ikastetxe publikoetan. Finkatu denez, horretarako zortzi aurrematrikula eskaera egon behar da Haur Hezkuntzan (3-6 urte) eta kopuru horretara iritsi ezean, Hezkuntza Departamentuak erabakiko du talde bat irekitzea halako ikastetxe batean, eta hartara “geografikoki hurbil” dauden bertze eskatzaile batzuk joanen dira, eta laguntzak izanen dituzte garraio eta jantokirako.

Hartara, eskualdeko aita-amek egindako eskaerari erantzunez, 2016-2017 ikasturtean 3 ikastetxe publikoetan ezarri zen eredu hau: Caparroso, Lodosa eta Tafalla, eta 3 gehiagotan 2017-2018 ikasturterako: Allo, Antzin eta Erriberri.

Euskarabideak D ereduari buruzko kanpaina eraman zuen aitzina, euskarazko irakaskuntzaren berri emateko bulkatzeko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikulan 2017-2018 ikasturterako.

Kanpaina zuzendua zegoen hurrengo ikasturtean 3 eta 4 urteko seme-alabak eskolatu behar zituzten aita-amei.

Kanpainaren leloak nabarmendu nahi du D ereduko euskarazko irakaskuntzaren esperientzia eta haren izaera eleanitza: "Hezkuntza hiru hitzetan: kalitatea, konfiantza, arrakasta. Etorkizuna hiruz hizkuntzatan: euskara, gaztelania, ingelesa".

- **89/2010 Foru Dekretua, eredu aldaketari buruzkoa.**

Gobernuz kanpoko iturriek Adituen Batzordeari nabarmendu diote 89/2010 Foru Agindua onetsi izana (2010eko 78. NAOa, ekainaren 28koa). Horren bidez, ikasleei baimena ematen diete euskara irakasgaia ez hautatzea, dela haren ordez Europako bigarren hizkuntza bat hautatu nahi delako (frantsesa edo alemana), dela ikasleek ikastetxean ikasteko izaera orokorreko zailtasunak dituztelako.

Adituen Batzordearen ustez, konpromisoa betetzen jarraitzen da.

Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 1eko 89/2010 Foru Aginduak (NAO, 89.a, ekainaren 28koa) irakaskuntzako hizkuntza ereduetako aldaketak arautzen ditu

4. artikulua. Ebazpena.

Kasu bakoitzean ikastetxeko zuzendaritzak ebatziko ditu hizkuntza ereduko aldaketak, irizpide hauei jarraituz:

3.-Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan atzerriko bigarren hizkuntza ikasteko ereduz aldatzen diren ikasleen kasuan, eskaera besterik gabe onartuko da.

5. Ikasleek disfuntzio psikopedagogikoak alegatzen badituzte, eskatu den hizkuntza eredu aldaketa onartuko da baldin lehenago diagnostiko klinikoko txosten fakultatiboa aurkezten bada, hori gomendatzen duena, edo, bestela, ikastetxeko orientatzailearen aldeko txostenaren bidez

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2010/78/Anuncio-2/

Hezkuntza Departamentuak aditzera eman duenez, ez da eskaerarik jasotzen euskararen ikaskuntza utzi eta atzerriko hizkuntza batean hasteko.

Aldaketak disfuntzio psikopedagogikoengatik egin nahi direnetan, eskaerek diagnostiko klinikoari buruzko txostena behar izaten dute. Familia erdaldunetako ikasleak izaten dira, eta aldaketak libratutako irakastorduak erabili ohi dira espezialisten errefortzuen berariazkoetarako (logopeda edo terapeuta) edo irakasleen errefortzurako.

- **Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko 8/2013 Lege Organikoa (LOMCE).**

Adituen Batzordeari aditzera eman zitzaion 8/2013 Lege Organikoak gaztelaniazko hezkuntzaren presentzia handiagoa aurreikusten duela Espainia osoan, eta horregatik beldurra bada, horrek kalterako eraginen ote dion eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan dagoen hezkuntza eskaintzari.

LOMCEaren 38.4 artikuluan ezartzen du hezkuntza administrazioek gaztelania eta hizkuntza koofiziala "arrazoizko neurrian" integratu behar dituztela, ikasleak bi hizkuntzak jakin ditzan.

<http://www.boe.es/boe/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12886.pdf>

LOMCEaren aplikazioaren ondorioz, katalanaren, euskararen eta gailegoaren garrantzia ahuldu egin da curriculumean. Gaztelania eta haren literatura enborreko irakasgai izatera pasatzen dira, eta hizkuntza koofizialak, berriz, **espezialitateko irakasgai bilakatzen**. Hau da, enborreko irakasgai izateari uzten diote.

Nafarroako Gobernurako Programa-akordioak, bere autonomiaren defentsan, honako hau dio Hezkuntzaren arloan:

1. LOMCEari uko egitea eta hura indargabetzearen alde egitea. LOMCEaren garapenak geldiarazteko jarrera irmoa hartzea; betiere, segurtasun juridikoa bermatuta.
2. Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemak egiturazko autonomia eta bere burua antolatzeke autonomia izatearen aldeko jarrera irmoa hartzea, hezkuntza araudia Nafarroako gizartearen ezaugarri, interes eta behar espezifikotara egokitzeko. Horretarako, eztabaida politiko eta sozial bat pitzaraziko da.

Legearen aldaketa Espainiako estatuko botere betearazleari dagokio edo, bertzenaz, botere legegileari.

3.2. Haur Eskolak

Nafarroan 135 haur eskola dira (horietarik, 38 euskaraz, %28). Haien titulartasunari dagokionez, 115 publikoak dira (35 euskaraz) eta 20 pribatuak (3 euskaraz).

Eremu euskaldunean ikastetxe gehienak euskaraz dira; eremu mistoan, %33 ia; eta eremu ez-euskaldunean ez da %4ra ailegatzen.

Gainerako ikastetxeak (ondoko laukian), udalenak dira edo pribatuak.

Haur eskolen gainean, 2016-2017 ikasturteko datuak ematen dira

HAUR ESKOLAK / NAFARROA 2016-2017								
Hizkuntza eredua	Eremu euskalduna	%	Eremu mistoa	%	Eremu ez-euskalduna	%	Guztira	%
Gaztelaniaz	1	7,14	37	52,86	43	84,31	81	60,00
Gaztelaniaz eta ingelesez	0	0,00	9	12,86	6	11,76	15	11,11
Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez	0	0,00	1	1,43	0	0,00	1	0,74
Euskaraz	13	92,86	23	32,86	2	3,92	38	28,15
Guztira	14	100,00	70	100,00	51	100,00	135	100,00

Iruñean, Nafarroako hiriburuan, defizita zegoen euskarazko eskaintzari dagokionez. Egungo 25 ikastetxeetarik 2 baizik ez ziren euskaraz.

Iruñeko Udalak, haur eskola horietako 13ren jabea baita, lehenagotik zeuden 2ei 2 gehiago gehitu zizkien euskaraz 2016-2017 ikasturtean.

IRUÑEKO HAUR ESKOLAK 2016-2017		
Hizkuntza eredua	Ikastetxe kopurua	%
Gaztelaniaz	16	%64,00
Gaztelaniaz eta ingelesez	5	%20,00
Euskaraz	4	%16,00
Guztira	25	%100,00

Iturria: Hezkuntza Departamentua.

2017-2018 ikasturterako aurreikusia dago Nafarroako Gobernuaren 7 haur eskoletarik 2tan, orain arte gaztelaniaz baitziren, euskarazko eredua ere eskaintzea; horrekin, **euskarazko eskaintza %24ra ailegatuko da.**

3.3. Lanbide Heziketa

Ondoko puntuari dagokionez: “d i) hezkuntza tekniko eta profesionala ziurtatzea eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan”, Adituen Batzordeak betetzat jotzen du konpromiso hau.

Hezkuntza maila honen garapenaren datuak erantsi ditugu, baita bertan izan diren aldaketak ere:

Lanbide Heziketa Nafarroako eskolatze datuak						
	2014-2015		2015-2016		2016-2017	
A eredua	0	%0,00	0	%0,00	0	%0,00
BD eredua	168	%2,03	208	%2,12	258	%2,67
G eredua	8.109	%97,97	9.583	%97,88	9.389	%97,33
Guztira	8.277		9.791		9.647	%100,00

Honako hau dio Nafarroako Gobernurako 2015-2019 Legegintzarako Programa-akordioak:

22. LHko hezkuntza eskaintza aztertzea eta aldatzea, eta euskarazko hezkuntza eskaintza handitzea...

Hezkuntza Departamentuak 2017-18 ikasterterako LHn aurkeztu duen eskaintzan %6 handituko da, erdi mailako zikloetan, Lanbide Heziketako euskarazko eskaintza, eta halako bi eginen du goi mailako zikloetan, %7raino.

Goi mailako zikloetan, Elizondo Lanbide Eskola IBPk euskarazko ziklo bat izanen du, (“Ostatu turistikoaren kudeaketa”), eta, bertze bat (“Automatizazioa eta robotika industrialak”), San Juan-Donibane Ikastetxe Bateratuak.

Euskarazko **Erdi Mailako** zikloei dagokienez, Elizondo Lanbide Eskola IIPk “Erizaintzako zainketa lagungarriak” eskainiko du, Basogintzako IBk, berriz, “Nekazaritza ekologikoa” eta Donapea IIPk “Ibilgailu automobilen elektromekanika”.

Ziklo horiei gehitzen zaizkie gaur egun euskaraz ematen direnak:

Goi mailan:

- “Administrazioa eta finantzak” (Donapea IIP eta Elizondo Lanbide Eskola IIP)
- “Mekatronika industrialak” (Bera, Toki Ona BHI)
- “Haur Hezkuntza” (Iruña, Hezitzaile Eskola II)

Erdi mailan:

- “Natur ingurunean gorputz eta kirol jarduerak gidatzea” (Lekaroz BHI)
- “Administrazio kudeaketa” (Donapea IIP eta Elizondo Lanbide Eskola IIP)
- “Mekanizazioa” (Elizondo Lanbide Eskola IIP)
- “Mantentze-lan elektromekanikoa” (Bera, Toki Ona BHI)
- “Erizaintzako zainketa lagungarriak” (Iruña, Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa IIP)

3.4. Unibertsitateko ikasketak

Unibertsitateko ikasketei dagokienez, puntu hauek dira aipagarriak:

e i) unibertsitate mailako irakaskuntza edo beste goi-mailako irakaskuntza-motak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan ezartzea; edo

ii) hizkuntzok unibertsitateko edo goi-mailako irakaskuntzaren ikasgai gisa ikastea ezartzea.

Hona zer dioen Nafarroako Gobernurako Programa-akordioak, Hezkuntzari dagokion puntuan:

Hizkuntza-normalizaziorako plan estrategiko bat egitea Nafarroako Unibertsitate Publikorako

Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) euskarazko irakaskuntzak hartzeko eta eskaintzeko eskubidea aitortzen du bere estatutuetan (1995 eta 2003). Hasieratik, oso-osorik euskaraz eskaini ditu Maisu-maistren diplomaturak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza espezialitateetan, baita irakasgai batzuk ere zenbait titulaziotan.

NUPeko 2007-2009ko Euskararen Plan Estrategikoa onetsi zenez geroztik, nabarmen handitu da euskarazko irakaskuntza unibertsitatean ematen diren titulazioetan, horietako bakoitzaren hizkeraren ezagutza berariazkoari mesede handiagoa egiten dioten irakasgaien hautapenaren arabera.

Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparrua (EGMHE) berrikitan ezartzearekin batera berriz ere diseinatu da euskarazko irakaskuntza titulazio guztietan. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Maisu-maistren graduak euskaraz eskaintzen dira, eta gainerako graduetan euskarazko irakasgaien eskaintza gehienbat lotzen zaio ezagutza adar bereko titulazioen arteko zeharkakotasun printzipioari, horixe baita EGMHEari egokituriko gradu berrietako lehen seihilekoen ezaugarri berariazkoa.

Graduak:

Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatea

	Kreditua	Irakasgaiak	Kredituak, guztira
Ekonomiako gradua	6	13	78
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua	6	17	102
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko gradu bikoitza	6	5	30

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Haur Hezkuntzako Maisu-maistra gradua (euskaraz)			240
Lehen Hezkuntzako Maisu-Maistren gradua (euskaraz)			240
Gizarte Laneko gradua	6	9	54
Soziologia Aplikatuko gradua	6	8	48

Industria eta Telekomunikazio Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa

Ingeniaritza Elektrikoko eta Elektronikoko gradua	6	11	66
Ingeniaritza Mekanikoko gradua	6	18	108
Diseinu Mekanikoko Ingeniaritzako gradua (Tuterako campusa)			
Industria Teknologietako Ingeniaritzako gradua	6	15	90
Telekomunikazioetako Teknologietako Ingeniaritzako gradua	6	7	42
Ingeniaritza Informatikoko gradua	6	7	42

Nekazaritzako Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa

			0
			0
Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzako gradua (NELII)	6	13	78
Nekazaritzako elikagai Prozesu eta Produktuen Berrikuntzako gradua (NEPPB)	6	4	24
Nekazaritzako elikagaietako Ingeniaritzako gradu bikoitza (NELII + NEPPB)	6	9	54

Osasun Zientzien Fakultatea

			0
			0
Erizaintzako gradua	6	2	12
Fisioterapiako gradua (Tuterako campusa)	0	0	0

Zientzia Juridikoetako Fakultatea

			0
			0
Zuzenbideko gradua	6	5	30
Lan Harremanen eta Giza Baliabideen gradua	6	4	24
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko gradu bikoitza	6	5	30

Masterrak

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Bigarren Hezkuntzako Irakasletzako unibertsitateko masterra			60
			1452

Iturria: NUP

Nafarroako Unibertsitateari buruz, pribatua baita, aurreko txostenean erraten zen Iruñean duen campusean euskal ikasketen diploma ematen zuela, 50 kreditukoa; alabaina, egungo informazioaren arabera, 60 kreditu dira euskal gaiei buruz, baina ez da zehazten zenbat diren euskaraz.

<http://www.unav.edu/eu/web/catedra-de-lengua-cultura-vasca/docencia>

3.5. Irakasleen prestakuntza

Hona zer dioen Europako Gutunak irakasleen prestakuntzaren gainean:

h) irakasleen beharrezko hasierako eta etengabeko prestakuntza bermatzea, Gutuna sinatzen duen Alde bakoitzak a)-tik g)-rako idatz-zatietatik onartutakoak aplikatzeko;

Bere aurreko ebaluazio txostenean, Adituen Batzordeak betetzat jo zuen konpromiso hori. Hala ere, ez zuen informaziorik euskarazko prestakuntza planaren eskemak betetzen ote zituen irakasleek prestakuntzaren aldetik dituzten premiak.

- Hasierako prestakuntza

Irakasleen euskarazko hasierako prestakuntza dela-eta, arestian adierazi bezala, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Maisu-maistra graduak eskaintzen ditu euskaraz, eta gainerako graduetan zenbait irakasgai eskaintzen dira euskaraz.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, lehen aldiz, Euskal Hizkuntza eta Literaturako masterra eskainiko du 2017-18 ikasturtean, horri buruzko irakaskuntza emateko Bigarren Hezkuntzan.

- Etengabeko prestakuntza

Hezkuntza Departamentuak zentro berariazkoa du irakasleei prestakuntza eta aholkularitza emateko. Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ) da, euskara hobetzeko ikastaroak eta irakaskuntzarekin ikusteko duten gaiei buruzkoak antolatzen dituena. Guztiak euskaraz. 6 irakasle aholkularik osatzen dute zentroko plantilla.

<https://eibz.educacion.navarra.es/web1/>

Departamentuak, gainera, Irakasleari Laguntzeko Zentroen sarea dauka Nafarroako zenbait eskualdetan. Zentro horietariko batzuetan euskarazko jarduerak ere egiten dira:

- Lekarozko ILZ (eremu euskalduna): ikastaro guztiak, ezinbertzekoak salbu, euskaraz eskaintzen dira; aipatzen dituzte 13 ikastaro euskaraz eta 2 gaztelaniaz.
- Iruñeko ILZ: prestakuntza osoaren %12.
- Lizarrako ILZ (eremu mistoa): ILZk ez du deus antolatzen, baina badirudi D ereduan euskarazko lantaldeak antolatu zirela.
- Tafallako ILZ (eremu ez-euskalduna, eremu mistoan sartzeko eskaera egin du): dena gaztelaniaz.
- Tuterako ILZ (eremu ez-euskalduna): dena gaztelaniaz.

<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/categoria/irunako-ilz/>

Hezkuntza Departamentuak lankidetzeta hitzarmena sinatu zuen Udako Euskal Unibertsitatearekin, bi unibertsitateetako ikasleak joan ahal daitezen ikasturtean antolatzen diren prestakuntza ikastaroetara, leku bete gaberik geldituz gero.

<http://www.ueu.eus/>

NUPeK euskarazko ikastaro teknikoak eskaintzen ditu, konparaziorako, kalitatezko testuen ekoizpenaren gainean.

<http://www.unavarra.es/euskara/iragarki-ohola?contentId=224913&languageId=100001>

Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiak Urrutiko prestakuntzako ikastaroen artean ez du euskarazko ikastarorik antolatu; guztiak, gaztelaniaz izan dira.

Hurrengo ikasturterako, asmoa da deialdi bikoitza ateratzea, bat gaztelaniaz eta bertze bat euskaraz, gehien eskatzen diren ikastaroetarako.

Bitartean, tutorea euskalduna denean, aurtengo ikastaroetan bai eskaini da tutoretza euskaraz egiteko aukera, baita jarduerak euskaraz entregatzeko ere, horrela eskatu duten irakasleei.

<http://aulavirtual.educacion.navarra.es/course/index.php?categoryid=2&lang=eu>

Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atalak euskaraz ikastaro batzuk antolatu ditu, Nafarroa osoko 6 herritan, D ereduko ikastetxeetan eta ikastoletan. Gaiak hauek izan dira: gaitasun emozionala, komunikaziorako trebetasun sozialak, eta bitartekaritza eta eskola jazarpena.

- **Euskara ikasteko prestakuntza**

Zenbait bide daude, gainera, jardunean ari diren irakasleek euskara ikasteko.

- Hezkuntza Departamentuak on line ikastaroak eskaintzen ditu EDUCALINGUA programan.

Ikasteko plataforma horrekin, Nafarroako Gobernuak tresna bat jarri du 2016-2017 ikasturtean jardunean egon diren irakasle guztien eskura, sare publikokoak izan edo itundukoak izan, beren hizkuntza ezagutzak hobetzeko eta A1etik C1era bitarte maila probak egiteko aukera izan dezaten.

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/-/el-departamento-de-educacion-ha-relanzado-educalingua-plataforma-de-autoaprendizaje-de-idiomas-online-para-docent-1>

- Euskarabidearen euskaltegian, 2002-2003 ikasturteaz geroztik 300 irakasle baino gehiagok parte hartu dute euskarazko ikastaroetan, NUPeko 89 langilez gain (ez dakigu nor diren irakasleak eta nor administrazioko langileak).

- Zubiarte euskaltegi publikoan euskara ikasteko ikastaroak ematen dira, A1etik C1era bitarteko mailetan eta zenbait motatakoak: on line, on line tutorizatu eta bertaratu beharreko ikastaroak. Matrikula doakoa da irakasleendako.

Euskararen 2016-2019ko Plan Estrategikoak honako hau proposatzen du irakasleen prestakuntzaren gainean:

- Prestakuntza eskaintza areagotzea, irakasleen euskarazko gaitasun komunikatiboa hobetzeko, kontuan izanik euskararen tokian tokiko aldaerak (halakorik badenean), haien gaineko prestakuntza eman dadin eta ikasgelan eta ikastetxean erabil dadin.
- Euskara irakasleek hizkuntzen didaktikaren arloan duten etengabeko prestakuntza sendotzea, ikasleen komunikazio gaitasunak hobetzeko eraginkorragoak izan daitezen.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen unibertsitate masterrean Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasle espezialitatea eskaintzeko aukera aztertzea.
- Bigarren Hezkuntzako Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleek Euskal Filologia, Euskal Ikasketak edo euskara barne duen Itzulpengintza edo Interpretazio titulazioa izan dezatela bermatzea.
- Aztertzea euskararen C2 maila egiaztatzen duen ziurtagiria Nafarroan eskaintzeko aukera.

3.6. Irakasleak eta Eskola Kontseilua

- Irakasleak

Aldizkako laugarren txosteneko informazioaren arabera, Nafarroako hezkuntza sistemak behar bezainbat irakasle ditu, euskaraz ongi dakitenak, klaseen eskaerari erantzuteko, eta irakasleen belaunaldi berriak hizkuntza horretan prestakuntza osoa dutela sartzen dira sisteman.

Adituen Batzordeak betetzat jotzen du konpromiso hori.

Horri dagokionez , hona Hezkuntza Departamentuaren iritzia:

2016-2017 ikasturtean euskaraz eskainitako zikloetan ez dago inon jasorik arazorik izan denik ziklo horietako moduluak ematean, ez irakasle funtzionarioen aldetik ez bitarteko irakasleen aldetik.

Euskarazko zikloen 2017-2018 ikasturterako eskaintza berriari dagokionez, Giza Baliabideen Zerbitzua lanean ari da euskarazko zerrendak irekitzeko ziklo berri horietan irakaslana duten kidego eta espezialitateetan.

- **Eskola Kontseilua**

Europako Gutunaren i) puntua

“kontrolerako organo bat edo gehiago sortzea, eta horren ardura izango da eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen irakaskuntza ezartzeko edo garatzeko hartu diren neurrien jarraipena egitea, eta puntu horiei buruz aldian-aldian txostenak egitea; txostenok jendaurrean jarriko dira.”.

Hirugarren ebaluazio txostenean, Adituen Batzordeak ez zuen ondoriorik atera konpromiso hori betetzeari buruz. Agintariei iruzkinak eskatu zizkien Nafarroako Eskola Kontseilua arduratzen ote zen euskarazko irakaskuntza ertainean kalitateaz eta alor horretan egindako aitzinapenez.

Aldizkako laugarren txosteneko informazioaren arabera, azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak, abenduaren 4ko 19/2012 Legeak aldatu zuenak arautzen du Nafarroako Eskola Kontseilua. Kontseiluaren eginkizunetariko bat urteko txosten bat prestatzea da erkidegoko hezkuntza sistemaren gainean, euskarazko irakaskuntza barne. Txosten publiko bat da, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeari aurkezten zaio, eta orobat igortzen hezkuntzan lanean ari diren guztiei; Eskola Kontseiluaren webgunean dago eskura.

Adituen Batzordeak betetzat jotzen du konpromiso hori.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren urteko txostena argitaratzen segitzen da, eta irakaskuntzaren kalitateaz eta euskarazko irakaskuntzan egindako aurrerapenez arduratzen da.

NHST eta Memoria 2014-2015

<http://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/?ddownload=2652>

NHST eta Memoria 2015-2016

<http://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/?ddownload=5640>

3.7. Mugaz gaindiko trukeak eta programak

Luzaideko eta Arnegiko hezkuntza proiektua.

Luzaideko ikastetxe publikoak 14 ikasle ditu (5 Haur Hezkuntzakoak eta 9 Lehen Hezkuntzakoak) eta hezkuntza programa eta ikasgelak partekatzen ditu Arnegiko eskolarekin (9 eta 14), Nafarroa Beherean, mugaz gaindiko proiektu baten barnean, zeinaren oinarria, bertzeak

bertze, hiru hizkuntza ofizialetan (gaztelania, euskara eta frantsesa) murgiltzea baita. Euskara da ikasle guztien hizkuntza komuna.

Lankidetzaren sistema berri samarra da, Luzaideren eta Arnegiren artean abiarazia, landa-eskolaren muina atxikita, biztanle galerari buru emateko, gizarte eta kultur harremana indartuz eta irakaskuntzaren kalitatea optimizatuz hizkuntzen apustu arrazoizko batetik eta mailen banaketa orekatsuetatik abiatuta”.

Formula misto honen arabera, Luzaideko Lehen Hezkuntzako ikasleak Arnegira joaten dira astean lau arratsalde, eta garraioaren kostua Nafarroako Gobernuak ordaintzen du. Astean bost goizez, berriz, Arnegiko Haur Hezkuntzako ikasleak Luzaidera joaten dira, eta orduan kostuari Frantziako Administrazioak egiten dio aurre. Batean nahiz bertzean, bere ikastetxeko jantokira joaten da ikasle bakoitza. Guztia, familien sostengua eta jarraitzeko konpromisoa dagoela inplikaturiko alderdien aldetik.

Ikasleak trukatzeko proiektua.

Txostenaren 2.4. puntuan aipatu dugu lankidetzarako hitzarmen berriak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren artekoa.

Haren barnean, aisialdian euskararen erabilera sustatzeko 2.1 xedean, honako hau erraten da: “Eskolatik kanpo, aisialdiaren arloan bereziki haur eta gazteei zuzendutako egitasmoak sustatu eta garatuko dira (hizkuntza egonaldiak, udalekuak, ...) alde ezberdinetako haur eta gazteen arteko trukeerako bideak aztertuz”.

Hitzarmena berri samarra da, baina bide bat irekitzen die euskaraz ikasten eta hitz egiten duten ikasleei mugaz gaindiko trukeak egin ahal izateko.

4. Justizia

Adituen Batzordeak hertsatuki eskatzen die Espainiako agintariei:

- lege esparrua alda dezatela, Nafarroan, agintari judizial penal, zibil eta administratiboek, jarduketak euskaraz burutzen dituztela segurtatzeko, alderdi batek hala eskaturik;*
- behar diren neurriak har ditzatela, horretara ezkerro, prozedura bateko alderdiek jakin dezaten, ematen zaien informazio berariazkoaren bidez, Nafarroako Komunitateko agintari judizialak beharturik daudela prozedura hori euskaraz eramateko, alderdi batek hala eskatuz gero, eta Gutunaren 9. artikulua 1.a.i, 1.b.i eta 1.c.i paragrafoetan Espainiak hartutako konpromisoekin bat;*
- behar diren neurriak har ditzatela, justizia administrazioko Nafarroako langileen artean, euskaraz epaitegietako lan hizkuntza gisa erabil dezaketenen proportzioa handitzeko, bereziki epaile eta fiskalen artean;*
- prestakuntza programa egokiak abiaraz ditzatela justizia administrazioko langileendako eta abokatuendako.*

Horren gaineko eskumena Gobernu Zentralarena da.

Botere judizialaren webgunean, Herritarrendako zerbitzuen sailean ematen da Justiziaren aitzineko hizkuntza eskubideen berri:

[Carta de Derechos del Ciudadano](#)

16.- Herritarrek eskubidea du, bere Erkidegoko Justizia Administrazioarekiko harremanetan, Erkidego horretako hizkuntza ofizialetatik aukeratzen duena erabiltzeko, eta Botere Judizialaren Lege Organikoan eta autonomia-estatutuetan eta estatutuok garatzeko arauetan ezarri bezala tratatua izateko.

http://www.poderjudicial.es/portal/site/cgpi/menuitem.87fc234e64fd592b3305d5a7dc432ea0/?vgnextoid=45fdb3b39ca58410VgnVCM1000006f48ac0aRCRD&vgnnextlocale=eu&vgnnextfmt=default&lang_chosen=eu

Nafarroako Gobernuak bere gain dauzka Justiziako langile laguntzaileak.

Langile horien prestakuntzaz den bezainbatean, horietariko batzuek parte hartzen dute Euskarabideko euskaltegiak antolatzen dituen ikastaroetan.

Justizia Zuzendaritza Nagusian jarduketa plan baten asmoa dago, bere mendeko langileen euskararen ezagutzaren diagnostikoa egiteko eta euskararen ezagutza behar duten lanpostuetan esleipena egiteko, herritarrei euskaraz emateko harrera eta zerbitzu.

5. Agintaritza eta zerbitzu publikoa

5.1. Lurraldeko administrazioa: Nafarroako Gobernuak.

Administrazioko agintariek edo horien kontura jarduten diren beste pertsona batzuek bermatzen dituzten zerbitzu publikoei dagokienez, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeetan, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera eta hori posiblea den neurrian, konpromiso hauek hartu dituzte Gutuna sinatzen duten aldeek: “zerbitzua ematerakoan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen direla zaintzea”


Nafarroako Gobernuak herritarrari harrera eta zerbitzu euskaraz emateari dagokionez, hori, orain arte, Hezkuntza arloan baizik ez da landu. Gainerako zerbitzuetan: Osasunbidea, enplegu bulegoak, Foruzaingoa, Suhiltzaile Zerbitzua... ez dago bermaturik. Hori zuzendu nahi da I. Plan Estrategikoa eta Euskarari buruzko Legea garatu beharrez onesteko dagoen Foru Dekretua aplikatuz.

Hona hemen gaur egungo datuak euskararen tratamenduari buruz Nafarroako Gobernuko administrazioko plantilla organikoan.

Ikusten denez, lanpostu elebidunen kopurua %11 ingurukoa da, gehienak Hezkuntzan. Osasunean —arrunt zerbitzu garrantzitsua, lanpostu kopuru handiena duena— lanpostu elebidunen portzentajea %0,61 da.

Departamentuak	Lanpostu Guztiak	Elebidun	%
Nafarroako Gobernuak (Lehendakaria eta Kabinetea)	7	0	0,00%
Kultura, Kirola eta Gazteria	373	0	0,00%
Eskubide Sozialetakoa	1.076	5	0,46%
Garapen Ekonomikorako	362	0	0,00%
Hezkuntza	9.154	2.701	29,51%
Ogasuna eta Finantza Politika	460	0	0,00%
Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia	2.769	17	0,61%
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetakoa	163	61	37,42%
Osasuna	11.233	68	0,61%
Landa Garapeneko, Toki Administrazioko eta Ingurumena	587	2	0,34%
GUZTIRA	26.184	2.854	10,90%

NAFARROAKO GOBERNUKO PLANTILLA 2016
LANPOSTU ELEBIDUNAK



2014ko urtarrilaz geroztik euskarazko hizkuntza eskakizuna definitu zaio 52 lanposturi. Haietarik, 3 suhiltzaileenak dira eta 11 foruzainenak, 6 erizainena eta 6 medikuena.

Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoak aurreikusten du administrazio publikoei gaitasuna ematea zerbitzuak euskaraz emateko, eta zerbitzu publikoetan euskarazko eskaintza handitzea.

Horretarako, jarduketa ildo berariazkoa definitu da. Ildo estrategiko hori administrazio publikoek herritarrarendako dituen zerbitzuei dagokie, erran nahi baita, zerbitzu publikoei, pertsonen hizkuntza eskubideak zaindu behar baitira halakoetan. Hortaz, plangintza nahitaezkoa da administrazioek beren betebeharrei egokiro erantzun ahal izateko.

Aztertu nahi duen lehen alorra Foru Administrazioa da: plantillaren diagnostikoa eta lanpostu elebidunen definizioa, hau da, langileek noraino dakiten euskaraz, eta zein diren lanpostuen komunikazio beharrak, definitu ahal izateko zeinetan beharko den Nafarroako bi mintzairetan jakitea. Halaber, nahitaezkoa da hizkuntza plangintza garatzea, euskara Foru Administrazioaren ekintza guztietan sar dadin; zeharkakotasunez, departamentu guztiek beren gain har dezaten euskara erabiltzeko ardura; eta, modu proaktiboan, herritarrek hizkuntza hautatzeko duten eskubidea egiazki errespetatu dadin. Bertze gai batzuk ere landuko dira, hala nola funtzionarioen euskarazko prestakuntza, itzulpen zerbitzua, eta euskaraz nola edo hala dakiten funtzionarioak aktibatze eta hizkuntza horretan ere ekoizten jartzeko baliabideak.

Foru Administrazioaz landa, ardatz horren barrenean toki administrazioak eta Nafarroan kokaturiko Estatuaren Administrazioa ere sartzen dira, eta haiekiko elkarlan esparrua aurrekusia dago.

Ekintza batzuk abiaraziak dira jada, hauek bertzeak bertze:

1. Dokumentuen prestaketa Nafarroako Gobernuko departamentuetan ekintza planak abiatzeko.
2. Kirolaren Institutuko eta Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko langileek hartutako prestakuntza ikastaroak.

3. Kirolaren Institutua: itzulpen zerbitzu bat jarri da kirol federazioen eskutan, eta Kirola eta Euskara jardunaldiak egin dira.
4. Hezkuntza: D ereduari buruzko informazioa (Hezkuntzari eskainitako kapituluak aipatu da kanpaina).
5. Toki entitateak: Euskarabideak txostenak egin ditu plantilla organikoan eta haien hizkuntza eskakizunak aztertzeko, eta udaletan euskara sustatzeko laguntzen deialdiak egin dira.
6. Elkarlana egin da Parlamentuarekin eta Iruñerriko Mankomunitatearekin, euskarazko ekintza planak abiatzeko.

Administrazio publikoen zerbitzuko langileak prestatzearen alorrean, Gutunak aipatzen du “funtzionarioak eta bestelako agente publikoak kopuru nahikoan erreklutatzea, edo, beharrezkoa bada, horiek prestatzea.

Nafarroako agintariei dagokienez. Adituen Batzordearen ondorioa izan zen konpromiso hori hein batean bete zela.

Aldizkako laugarren txosteneko informazioaren arabera, Nafarroako Administrazio Publikoko langileendako euskarazko prestakuntza sartu zen Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak idatzitako Urteko Planean; hura Euskarabidearen eta NAPlren artean koordinaturik dago eta Nafarroako Gobernuak finantzatua, eta ikastaroetara joaten diren langileendako baimen ordaindua aurreikusten du. Azpimarratzekoa da urtero 1.000 langile baino gehiagok parte hartzen dutela euskarazko prestakuntza ikastaroetan.

Euskararen I. Plan Estrategikoak langileak gaitu nahi ditu euskarazko zerbitzuen eta arretaren eskaintza handitzeko; horretarako ekintza hauek egingen dira:

- Langileen euskarazko prestakuntzarako irizpideak ematea eta hura planifikatu, garatu eta ebaluatzea.
- Langile euskaldunak aktibatzea eta euskaraz trebatzea haien lanpostuetan zerbitzua euskaraz emateko eta haien eginkizunak euskaraz garatzeko gai izan daitezen.
- Langileen etengabeko euskarazko trebatze teknikoak, lanpostuen komunikazio beharrei loturikoa, diseinatu eta garatzea.

Europako Gutunak aipatzen du eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen hiztunek aukera izatea ahozko edo idatzizko eskaerak aurkezteko hizkuntza horietan;

Hirugarren ebaluazio txostenean, Adituen Batzordeak ondorioa atera zuen konpromiso hein batean betetzen zela, eskualdeko agintariei dagokienez. Agintariei eskatu zien neurriak hartzeko euskararen erabilera sustatzeko administrazio organoetan.

Aldizkako laugarren txostenean emandako informazioaren arabera, euskarazko eskaera guztiei harrera egiten zaie erregistroetako inskripzioen ziurtagirietarako, eta erregistro orokorretan, informazio zerbitzuetan eta jendeari arreta ematekoetan edo herritarrarendako zerbitzuen postontzietan erregistraturiko inprimaki, gaztigu eta jakinarazpenetan. Zer hizkuntzatan jaso diren, horrexetan ematen zaie erantzuna galdera, kexa eta erreklamazioei. Administrazioaren halako departamentu bati zuzendurik, hark ezin badu zuzenean erantzun eta testua itzuli behar bada, Itzulpen Atalari bidali behar zaio.

Adituen Batzordeak betetzat jotzen du konpromiso hori.

Euskarabideko Itzulpen Atalak Nafarroako Aldizkari Ofiziala euskaratzen du, baita etengabe eguneratu ere, eta bere gain hartzen du LEXNAVARRA euskaraz izeneko foru xedapenen corpusa, Nafarroako Gobernuaren atalean eskura dagoena. Gainera, itzulpen zerbitzua ematen die Nafarroako Gobernuko departamentu guztiei. Itzulpenak egiteko eskura dagoen plantilla 22 lagunekoa zen 2016an eta 2017ko urtarrilaz geroztik bi lagun gehiago ditu.

Nafarroako Parlamentuak euskarazko Itzulpen Unitatea dauka, baita interpretazio zerbitzu bat ere borts itzultzaile-interpretarik osatua, Prentsa, Argitalpenak eta Protokolo Zerbitzuaren barnean. Nafarroako Parlamentuko osoko bilkura eta batzordeetan, gaztelaniaz edo euskaraz egin dezakete Biltzarreko kideek.

Parlamentarien ekimen guztiak euskaratzen dira, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar badira. Lehendakaritzak, Bozeramaileen Batzarrak, Osoko Bilkurak eta Batzordeek onesten dituzten ebazpen guztiak gaztelaniaratzen eta euskaratzen dira eremu euskalduneko entitate edo organoei dagozkienean.

5.2. Toki administrazioa

1996az geroztik, toki entitateak ordenantzak onesten joan dira, euskararen erabilera eta sustapena udal esparruan eta udalen batasunenean normalizatzeko. Haien egitura aski estandarra da eta gai hauek jorratzen ditu:

- Administrazioen arteko harremanak
- Herritarren eskubideak
- Udalaren kanpo eredua
- Udal langileak eta barne funtzionamendua
- Kontratazioak
- Euskararen sustapena
- Toponimia.

- Haur eskola eta musika eskola.
- Diru-laguntzak

Eremu euskaldunean gutxienez ere herri handienek beren ordenantza onetsi dute euskararen erabilera eta sustapena udal esparruan arautzen duena.

Gainera, Nafarroako 13 udalerrri UEMAko kide dira (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea). UEMAk biztanleen %70 gutxienez euskaldun dituzten udalerrriak elkartzen ditu. Elkarteko kideak dira: Araitz, Arantza, Arbizu, Areso, Basaburua, Baztan, Bera, Etxalar, Etxarri Aranatz, Goizueta, Igantzi, Larraun eta Leitza.

Mankomunitatearen xedea da herritarraren gizarte bizitza, publikoa nahiz pribatua, euskaraz garatu ahal izatea; biztanleriaren gehiengoa euskalduna duten herrien udalek elkarri lagundu ahal izatea euskararen erabileraren eremu bat osatzeko, eta haien garapen sozioekonomiko eta soziokulturala bulkatzea.

<http://www.uema.eus/nor-gara/>.

Eremu mistoko toki entitate nagusiak ere ahaleginak egiten ari dira Euskarari buruzko Foru Legea errespetatzeko beren herritarrei arreta egitean, euskara babesteko eta sustatzeko ordenantzak onetsiz beren ordenamendu juridikoan eta jendeari arreta emateko lanpostuetan hizkuntza eskakizunak gehituta. Eremu mistoan 24 ordenantza daude, non eta biztanle gehien dituzten herrietan.

Are eremu ez-euskaldunean ere 3 udalerritan halakoak onetsi dira azken urteetan: Tafalla, Metauten eta Larraga.

Nafarroan 27 euskara zerbitzu daude, toki entitateetan euskara bulkatzeko ardura dutenak: 2016an zerbitzu berria sortu zen Izarbeibarko Mankomunitatean. Zerbitzu horietariko batzuk udalenak dira, eta bertze batzuk, berriz, eskualdeka mankomunatuak.

2014an, 40 udalek eskatu zuten diru-laguntza euskara sustatzeko programazioak finantzatzeko; 2015ean, 41ek, eta 2016an, 52k.

Nafarroako Gobernuak diruz lagunduta, jarduera mordo bat egiten dute euskara bulkatzeko, batzuetan bakarka eta bertze batzuetan udal gehiagorekin elkarlanean. Hona zer jarduera diren, bertzeak bertze:

- Ipuin-kontalariak
- Antzerkia
- Zinema
- Musika
- Bertsolaritza

- Euskarazko klaseak
- Literatur lehiaketak
- Argitalpenak: egutegiak, tokiko aldizkariak, boletinak
- Ludoteka
- Lantegiak
- Irakurzaletasuna pizteko programak
- Euskara merkataritzara eramateko jarduerak

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak sinatu du euskara udal esparruan erabili eta sustatzeko toki entitateek 2016an egindako jardueretarako laguntzak ordaintzeko ebazpena.

Diru-laguntzen funtsezko xedea da toki entitateei betetzen laguntzea Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean ezarritakoa eta Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutuna berresteko tresnan hartutako konpromisoak.

2014an, diru-laguntzak 140.000 euro egin zuen; 2015ean, 146.000 euro; eta 2016an laguntzen zenbatekoa, osotara, 300.000 euro izan da, esparru hauetarako:

- Euskara bizitza kulturean eta sozialean erabiltzeko programa eta proiektuetarako.
- Zenbait entitatek batera egindako programa eta proiektuetarako.
- Euskara zerbitzu tekniko berriak abiarazteko.

2017an 650.000 euroko aurrekontua dago.

<http://www.euskarabidea.es/euskara/albisteak>

5.3. Estatuaren administrazioa

Hirugarren ebaluazio txostenean, Adituen Batzordeak adierazten du uste duela konpromisoa ez dela betetzen Estatuaren Administrazioari eta bere eskumeneko zerbitzu publikoei dagokienez.

Txosten horretan emandako informazioari jarraikiz, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren online edukiaren %96 itzulia dago hizkuntza koofizialetara.

Gainera, SEPEk (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) 2013aren hasieran itzuli zituen lan-kontratuen eredu guztiak hizkuntza koofizialetara, eta bere webgunean argitaratu zuen langabezia-prestazioei buruzko informazioaren hizkuntza horietarako itzulpena.

Sustapen Ministerioan, AENAREN (Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa) webguneko edukia hizkuntza koofizial guztietan dago. Orobat, 2009az geroztik, RENFEK (Espainiako Trenbide Sare Nazionala) aukera ematen du hizkuntza koofizialetan egiteko txartelen erosketa eta tren garraioaren zerbitzuari buruzko informazioaren kontsulta.

Barne Ministerioan, informazioaren eta hauteskundeetako materialaren zati handi bat dagozkien webguneetan biltzen da, hizkuntza koofizialetan. Gainera, hizkuntza koofizialak agertzen dira Genero indarkeriaren webgunean eta Guardia Zibilarenean. Poliziaren Zuzendaritza Nagusia lanean ari da salaketak hizkuntza horietan jasotzeko eta tramitatzeko aplikazio informatikoan.

Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioan, hizkuntza koofizialetara itzulia dago Aurrekontu eta Gastuetarako Estatu Idazkaritzaren eta Estatuko Administrazioaren Kontu-hartze Orokorren web edukiaren %99. Gainera, hizkuntza koofizialetan dago Administrazio Publikoetarako Estatuko Idazkaritzaren ataria.

Bertzalde, Gutunak aipatzen du agintari administratiboei eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean dokumentuak idazten uzteko aukera.

Hirugarren ebaluazio txostenean, Adituen Batzordeak ez zuen deus ondorioztatu ahal izan konpromiso horri doakionez, kontraesankorra baita euskara nortasun agirietan eta gidabaimenetan erabiltzeari buruz dagoen informazioa. Eskatu zuen zehazteko Estatuko Administrazioko agintariak eremu euskaldunean dokumentuak euskaraz emateaz arduratzen ote ziren.

Aldizkako laugarren txostenak argibiderik ez dauka konpromiso honen gainean.

Adituen Batzordeak eskatu die agintariei horren gaineko argibide gehiago ekar dezan.

DGTaren webguneak ez du hizkuntza aldaketarik eskaintzen, gaztelaniaz baizik ez dago. Itxura denez, inork ez du, ezta eremu euskaldunekoek ere, gidabaimena euskaraz ateratzeko aukerarik.

Hala ere, haien zerbitzu gutunean onartzen dira herritarren halako eskubide batzuk hartzen dituzten zerbitzuei dagokienez.

Herritarrak, Administrazio Publikoekiko harremanetan, eskubide hauek dituzte, bertzeak bertze:

Autonomia erkidegoko lurraldean ofizial diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzera.

Kontraesana dago bere zerbitzu gutunaren eta praxiaren artean.

2015ean, Nafarroako Arartekoaren txostenean honako hauei buruzko kexa agertzen zen:

desadostasuna, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko "Salaketa automatizatuen tratamendurako zentroak" ez duelako betetzen herritarrarekiko komunikazioa berak hautatzen duen hizkuntzan ezartzeko betebeharrarekin.

2013an salatu zen Nafarroan Nortasun Agiri Nazionala elebitan eskatzeko ezintasuna.

Webguneak ez du hizkuntza aldaketarik eskaintzen.

Testu inprimatuen egoera ez da aldatu.

Webguneen lehen bistaratzeak, elementu finkoak nagusiki, euskaraz ere eskaintzen dira.

Erregistro Elektronikoa, berriz, gaztelaniaz dago osotara.

Estatuko Aldizkari Ofizialak (EAO) euskaraz sarreratxo bat eskaintzen badu ere, gaztelaniaz dago osotara.

<https://administracion.gob.es/pagFront/tramites/miVidaEnTramites/miVidaEnTramites.htm?idioma=eu>

6.- Hedabideak

Hona Europako Gutunak zer dioen hedabideen gainean, 1. f.ii paragrafoan eta 2. paragrafoan:

Aldeek zenbait konpromiso hartu dituzte eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunei dagokienez, hizkuntzok erabiltzen diren lurraldeetan, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, eta agintari publikoek, modu zuzenean edo zeharkakoan, arlo horretan boterea edo eginkizunen bat duten neurrian, beti ere komunikabideen independentzia eta autonomia printzipioak errespetatuz. Konpromisoak hauek dira:

a) irratia eta telebista zerbitzu publikoak diren neurrian

i) gutxienez irradi-estazio eta telebista-kate bana sortzea eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan;

Nafarroako Gobernurako 2015-2019 legegintzaldirako Programa-akordioak 3 puntu biltzen ditu hedabideez den bezainbatean:

12. Euskarazko komunikabideen eta euskara hein jakin batean erabiltzen dutenen finantzaketa lehengoratzeta eta hobetzea eta, horretarako, hitzarmenak eta laguntzak emateko deialdiak egitea.

13. Finantzaketa publikoa duten hedabideak programen ehuneko bat euskaraz ematera behartzea, deialdi bakoitzak finkatzen duen ratioaren arabera.

14. Nafarroako herritar guztiek euskarazko hedabideak erabili ahal izatea ziurtatzeko neurriak hartzea.

Gutierrez ere, 12. eta 14. puntuak abian dira: hona ekarri ditugun Euskarabidearen aurrekontuetan ikusten denez, euskarazko hedabideek finantzabidea dute 2016rako eta bertze partida bat 2017ko aurrekontuetarako.

Erabaki hauek Euskararen I. Plan Estrategikora ere eraman ziren:

1.1 Hizkuntza politika berri baterako konpromisoak

- Euskarazko komunikabideen eta euskara hein jakin batean erabiltzen dutenen finantzaketa lehengoratzeta eta hobetzea eta, horretarako, hitzarmenak eta laguntzak emateko deialdiak egitea.
- Finantzaketa publikoa duten hedabideak programen ehuneko bat euskaraz ematera behartzea, deialdi bakoitzak finkatzen duen ratioaren arabera.
- Nafarroako herritar guztiek euskarazko hedabideak erabili ahal izatea ziurtatzeko neurriak hartzea.

Euskararen I. Plan Estrategikoak, berriz, aurreikusten du euskarazko hedabideen eskaintza eta erdaraz diren hedabideetan euskarak duen tokia zabaltzea, herritarrei euskarazko informazioa eskuragarriago eta errazago paratzeko.

Euskarazko hedabideak

- Formulak ezartzea (hitzarmenak, laguntza deialdiak, etab.) euskarazko hedabideen finantzaketa hobetzeko.
- Foru Administrazioaren eta sektorearen arteko lankidetzaren guneak sustatzea euskarazko hedabideen arloaren beharrei hobeki erantzuteko.
- Euskarazko hedabideen eskaintza egokia eta kalitatea bermatzeko formulak aztertzea.
- Euskarazko hedabide eskaintzan dauden hutsuneak estaltzeko ekimenen garapena bulkatzea.
- Haur eta gazteendako ETB3 kanal tematikoa Nafarroa guztian har dadin bultzatzea.

Gaztelaniazko hedabideak

- Hedabideen programazioan euskararen presentzia sustatzea, laguntza deialdi baten bidez.
- Finantzaketa publikoa jasotzen duten hedabideek ekoizpenaren zati bat euskaraz egin dezaten arautzea.

2014an eta 2015ean ez zen deialdirik egin hedabideei laguntzak emateko.

2016an berriz ere abiatu zen deialdia, 290.000 euroko aurrekontua zuela.

2016ko deialdian hedabide hauek hartu zituzten laguntzak:

- Euskara erabiltzen duen eguneroko prentsa: 2
- Euskara hutsezko tokiko aldizkariak: 10
- Euskarazko irrati komertzialak: 2
- Euskarazko udal irratiak: 4
- Euskara erabiltzen duten tokiko aldizkariak: 3
- Euskarazko on line hedabideak, edo euskara erabiltzen dutenak: 7

Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak ikus-entzunezko ekoizpenerako laguntzen deialdia egin du, Nafarroako telebista eta sektoreko enpresa ekoizleendako; 1.595.131 euroko laguntzak ematen dira.

32 programak eskuratuko dute laguntza publikoa, eta guztiak sei telebista kateren bidez ikusten ahalko dira (Navarra Televisión eta Nafar Telebista, autonomikoak; Iruñeko Hamaika TB, Xaloea TB eta NTB11, tokikoak; eta Tafallako Zona Media TV, tokikoa), eta gainera, programazioa nahieran ikusi ahal izateko kate horiek Interneten dituzten plataformen bidez.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2016/07/18/Ayudas+produccion+audiovisual.htm

2017rako jadanik onetsirik dago euskarazko hedabideendako eta neurriren batean hizkuntza hori erabiltzen dutenendako laguntzen deialdia, eta 580.000 € daude gorderik horretarako.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2017/98/Anuncio-2/http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2017/98/

Hona egoera 2016an:

Euskarazko komunikabideak

Idatziak (Aldizkariak)	Irratiak	Telebistak	On-line
Guaixe	Xorroxin	Nafar telebista	Erran.eus
Ttipi-ttapa	Euskalerrria	Xaloea Telebista	Guaixe.eus
Pulunpe	Beleixe	...	Euskalerrriarratia.eus
Mailope	Aralar		...
Axular	Esan erran		
Nafarroako hitza...	Karrape...		

- Euskarazko telebistaren kaptazioa

EITB. 2.4 puntuan —Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzak akordioei dagokien atalean— erran bezala, 2016ko uztailean, Nafarroako Gobernuak lankidetzak hitzarmena sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin, eta irailaz geroztik Nafarroako lurralde osoan ikus daiteke ETB1, helduendako euskaraz katea, TDTren bitartez. Hala ere, ETB3, haurrentako programaziorako euskarazko kate berariazkoa, ez da Iruñeko barrutian ikusten ahal.

Honela gelditu da egungo berrantolamendua:

- Iruñeko barrutia, 38. kanala: ETB 1 (bakar bat zegoen libre)
- Tafallako barrutia, 31. kanala : ETB 1, ETB2, ETB 3
- Lizarrako barrutia, 24. kanala: ETB 1, ETB2, ETB 3

- Zangozako barrutia, 45. kanala: ETB 1, ETB2, ETB 3
- Tuterako barrutia, 39. kanala: ETB 1, ETB2, ETB 3

Iturria: EITB

Nafarroako Gobernuak multiple berria eskatu dio Madrilgo Gobernuari, ETB3-ren kaptazioa ahalbidetzeko, erkidego mailako TDT-ko multiplea lau programak okupaturik baitago (SD).

Ez da inolako erantzunik jaso.

Euskarazko bertze telebistei dagokienez, **Nafar Telebista** (entitate pribatua) 2015eko maiatzean sortu zen, bi telebista katerekin: NTB 1 eta NTB 11, eta 2016ko urrian gelditu da emititzetik. Emititzetik gelditzeko arrazoiak ez zaizkio egozten ahal ez gobernu ekintzari ezta laguntza publikoak eskuratzeko inolako ezintasuni. Informaziorik ez dago emititzen segitzeko asmorik ote duen. Nafar Telebistako euskarazko eskaintza, nagusiki, haurrendako programazioak osatzen zuen: marrazki bizidunak, musika eta bertze. Asteburuetan pilota partidak ere eskaintzen zituen euskaraz. 20.000 ikusle zituen egunean, CIESeK 2016ko udaberrian jakinarazitako datuen arabera.

Navarra Televisión erkidego mailako telebista katea da; 2017ko maiatza bitarte ordu erdiko 2 programa emititu zituen euskaraz, 15:00etatik 15:30era eta 18:30etik 19:00etara (ortziraletan, 09:30etik 10:00etara eta 17:30etik 18:00etara), NIREKIN IKASI programa. Larunbat eta igandeetan ez dago programarik.

Maiatzean GOIAN ETA BEHEAN izeneko programa emititzen du.

<http://www.natv.es/Programacion>

Xaloe telebistak Iruñeko barrutian eta ipar aldean emititzen du: Baztan, Malerreka, Bortziriak...

Radio Televisión Española (RTVE) kate publikoari dagokionez: **Televisión Española** Estatuaren kate publikoaren lurraldeko zentroak albiste laburpen bat eskaintzen du egunero, Arin-arin izenekoa, 2-3 minutu ingurukoa. Irratiek ez dute euskarazko programaziorik ematen.

Nafarroan, orotariko telebistek ez dute euskarazko programaziorik emititzen.

Erran bezala, erkidego eta/edo toki mailako entitate pribatuen euskarazko 32 programak eskuratu zuten Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza publikoa.

- **Euskarazko irratia**ren kaptazioa

Euskadi Irratia Eusko Jaurlaritzaren irratia publikoa da, euskaraz emititzen du eta Nafarroako Foru Komunitate osoan entzuten da.

Euskalerria Irratia Iruñerri osorako euskaraz emititzen duen irrati pribatua da, eta 2016az geroztik du lizentzia. 2015ean, 30 urteko gatazkari eman zitzaien akabaila, zenbait errekurtsoren ondotik, Espainiako Justizia Auzitegi Nagusiak Nafarroako Gobernuari agindu ziolarik lizentziak esleitzeko bertze lehiaketa bat egin zezan. Aitzineko gobernuak ez zuen inolako erabakirik hartu horren gainean; Nafarroako Gobernu berriak, ordea, 2015ean erabaki zuen lizentzia ematea deialdia baloratzeko mahai teknikoak proposatu zuenaren ildotik.

Iruñerrian baizik harrapatzen ez bada ere, Interneten bidez zabalkunde handia lortzen du eskualdetik kanpo.

<http://euskalerrairratia.eus/info/norgara/irratia/>

Xorroxin Irratia, irrati komertzial bat da, Nafarroako ipar aldeko ibar hauetan emititzen duena: Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka, Mendialdea eta Xareta. Nafarroako eremu euskalduneko populazioaren zati handi bati egiten dio zerbitzu, programazio zabal eta askotarikoa osoki euskaraz emanez. Lesakan eta Elizondon ditu egoitzak.

Gainera, euskarazko tokiko bertze lau irrati daude, udal titulartasunekoak, eremu euskalduneko eskualde desberdinetan, toki mailako programazioak emititzen dituztenak esparru txikiagoetan. Honako hauek dira.

- **Karrape**, egoitza Leitza duena
- **Esan-erran**, egoitza Jauntsaratsen duena
- **Aralar**, egoitza Lekunberrin duena
- **Beleixe**, egoitza Etxarri-Aranatzen duena

Irrati hauek guztiek laguntza publikoa eskuratu zuten euskaraz hedatzeko.

Eremu nazionaleko irrati pribatuek, deskonexioak egiten badituzte ere erkidego eta toki mailako programazioak aireeratzeko, ez dute euskarazko programaziorik eskaintzen.

- **Prensa euskaraz**

Berria da euskarazko orotariko egunkari bakarra. Nafarroan argitaratzen ez bada ere, Iruñean korrespontsalia bat du, Nafarroaren berri ematen du eta Nafarroako Foru Komunitate guztian banatzen da.

Astean behin, eskualde mailako orria argitaratzen du, horietariko bat Nafarroari eskainia, eta egunerokotasuneko gaiak, albisteak, elkarrizketak, iritzi artikulak eta agenda.

<http://nafarroa.hitza.eus/>

Diario de Noticias eskualde mailako egunkariak, gaztelaniaz argitaratzen bada ere, 8 orrialdeko gehigarria ateratzen du astero, ikasleei eskainia, eta horrez gain euskarazko albiste puntualak.

Idatzizko zenbait argitalpen eta tokiko aldizkari daude, osorik edo partez euskaraz argitaratzen direnak.

Zenbait udalek, beren euskara zerbitzuen bitartez, gaztelaniazko aldizkari bat argitaratzen dute, euskarazko albisteak dituena, **ZE BERRI?** izenekoak; doan banatzen da, eta haren helburua euskarari prestigioa ematea da, eta euskal hizkuntzaren inguruan dauden ekintza eta gertakarien berri ematea.

- **Euskarazko on line hedabideak**

Azkenik, badira 7 on line hedabide, euskarazkoak izateagatik edo sare sozialetan euskara erabiltzegtatik sarean hedatzeko laguntzak hartzen dituztenak.

7. Kultura

Europako Gutunak aipatzen du zein kultur jarduera eta zerbitzutan bulkatu behar den hizkuntza: liburutegiak, bideotekak, kulturguneak, museoak, artxiboak, akademiak, antzokiak eta zine aretoak, baita literatur lanak eta zine ekoizpena, herri kulturaren adierazpideak, jaialdiak eta kultur industriak ere, bereziki teknologia berrien erabilera barne dela.

- Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusian ez dago euskararen ezagutza nahitaezko duen lanposturik; hori zuzentzeko ahalegina egingen da Euskararen I. Plan Estrategikoaren ondotik abiaraziko den Jarduketa Planean.

Plantilla honetako 40 lagunek baino gehiagok parte hartu dute Euskarabideak funtzionarioendako antolatutuen euskarazko ikastaroetan, B2 edo handiagoko mailetan, baina gehienak liburutegi, museo eta abarretakoak dira.

Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Foru Komunitaterako Kulturaren Plan Estrategikoa (NKPE) sustatzen, koordinatzen eta kudeatzen du, 2016an Partaidetza Planarekin egin bezala.

Xedea da **Ekintza Plan** bat osatzea, gaur egungo egoeraren diagnostiko batean oinarriturik, Nafarroan kulturaren arloan egiten diren jarduketak norabidetzeko eta balioesteko.

NKPEri 2017tik 2023ra bitarteko denbora tartea eman nahi zaio.

Hona zer irakurtzen den haren planteamenduan: “Sormenaren industriak eta industria digitalak gorabidean dagoen sektoretzat hartzen dira Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren barnean. Nafarroako Gobernuaren kultur politikaren diseinuak bermatu behar du hura eskura dutela, modu irekian, bai Nafarroako herritar guzti-guztiek bai haren antolakuntzan dabilzan erakunde eta taldeek, eta orobat bermatu kontuan hartzen dituela lurraldearen eta bertako biztanleen izaera eta haren kulturaren aniztasuna, sormen artistikoaz, kultur agerpenez eta hizkuntzez den bezainbatean; gisa horretan, egokitzapen eta bilakaera baten ondorioz, xedea litzateke harreman iraunkorra nagusitzea lurraldearen barnean nahiz kanpoan, gure artean eta gure eta gainerakoen artean”.

Kultura Zuzendaritza Nagusia – Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako Arteen Azoka abiarazi zuen azaroaren 15ean eta 16an, Iruñean eta Iruñerrian. Bere lehen aldian, **948 Merkatua (Nafarroako Arteen merkatua)** azoken azoka gisa aurkeztu zen, diziplina hauen guztien

agertoki: zinema; musika; arte eszenikoak; liburu eta diskoen argitalpena; arte plastikoak eta ikus-entzunezkoak; eta bertzelako sormen eta kultur industriak.

Gaur egun irekia dago izena emateko epea bigarren 948 Merkatuan parte hartzeko.

Haren helburuetan, nabarmentzekoa da Nafarroaren kanpo irudiaren proiektzioa, kultur aberastasuna eta hizkuntza aniztasuna duen lurralde gisa.

Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatutako programa artistikoen gaineko informazioa guztia gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzen dira webgunean. Posterrak eta programak euskaraz inprimatzen dira eremu euskaldunean eta/edo mistoan partez aurkezten diren programa artistikoetan.

Nafarroako Gobernuak kudeatzen du Nafarroako liburutegien zati bat; haietan herritarrari euskaraz harrera egitea aipatu Euskararen I. Plan Estrategikoaren eskutan egonen da gehiago, bere hirugarren ardatzean —Zerbitzu Publikoak— arazo horri heldu nahi baitio. Gehitu beharra dago liburutegietako langileen artean 25ek parte hartu dutela Nafarroako Gobernuak antolaturiko ikastaroetan, B2 mailan edo handiagokoetan, azken hamarkadetan. Eremu euskaldunean 10 lanpostu daude eta horietarik 8tan dago sartutako euskararen ezagutza merezimendu gisa eta, nahiz eta gaur egun lanpostu horiek gehienak euskaldunek edo hizkuntza horretan harrera egiteko prestakuntza jaso dutenek betetzen dituzten, ez dago bermatua herritarrari harrera euskaraz egiten zaionik. Aurreikusia dago 2017aren joan-etorrian erabakiak hartuko direla euskarazko harrera bermatzeko.

Nafarroako Filmotekak euskaraz eta gaztelaniaz du webgunea. Hileko programazioaren liburuxka ele bitan agertzen da eta webgunean plazaratzen. Euskarazko film bat programatzen denean, liburuxkako kritika hizkuntza horretan egiten da.

Punto de Vista Jaialdiaren webgunea ele bikoa da eta haren eduki guztiak gaztelaniaz eta euskaraz kontsulta daitezke. Gainera, katalogoak ere ele bitan eginak daude, aldizkari guztiak bezala. Urte hauetan argitaratu diren filmetariko batzuk euskarazko jatorrizko bertsoak ziren, azpigituluak gaztelaniaz zeuzkatenak.

Kultura Zuzendaritza Nagusiak laguntzak ematen dizkie kultur jarduera aunitzi, hala nola sormenaren sustapenari, arte ekoizpen eta arte eta kultur enpresen garapenari; sormen eta kultur sektore egonkor, berritzaile eta lehiakorraren hazkunderako sostenguari; udalerrietako kultur jardueretarako sostenguari eta abarri. Guztietan, arreta berezia ematen zaio eskualdeetako hizkuntzaren aldeko konpromisoari eta lizitazioaren eskuragarritasunari.

- **Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua**

Euskarabideak Kirol eta Gazteriaren Institutuaren eskakizuna jaso zuen jarduketak egiteko euskararen normalizazioaren arloan. Hizkuntzaren sozializazioa aisiaren bidez egitea zutabe nahitaezkoa da haren erabilerarako; alde horretatik institutu honek duen garrantzia dela eta, lehenetsuna eman zitzaion jarduera horri. Esperientziak proba pilotu gisa balio izan du Ekintza Planak prestatzeko.

Lan dinamikarako lantalde bat sortu zen, aholkulari zituena Euskarabideko bi teknikari. Zenbait lan egin dira:

- Institutuko bulegoetako errotulazio nagusiko ikusizko paisaiaren azterketa: panelak, afixak eta adierazleak. Ele biko errotulazioa paratu zen.
- Euskaraz dakiten pertsonen diagnostikoa, inkesta baten eta elkarrizketen bitartez.
- Hutsik gelditzen diren lanpostuak jende elebidunekin betetzeko aukeren azterketa.
- Nafarroako kirolean dagoen egoerari buruzko ponentzia baten prestaketa, euskarazko teknikarien Udaltop teknikarietan, 2016ko maiatzean.
- Hizkuntza hobetzeko mintzatalde baten sorrera.
- Institutuko langileak Euskarabidearen ikastaroetan izena ematera animatzeko kanpaina, euskaraz ikas dezaten.
- Nafarroako Kirol Federazioetan euskarak duen presentziaren azterketa. Ente pribatuak dira, diru-laguntza handia hartzen dutenak. Teknikari itzultzaile baten kontratazioa erabaki da, lan horri bulkada emateko. Euskarabideak bere ekarpena egin du kostuaren erdia ordainduz (20.000 euro). Itzultzailea kazetaria da ogibidez, eta federazioek eskatu ahala hasi zen lanean zenbait lan eginez: euskararen presentzia kirol lehiaketa eta ikuskizunen karteletan, informaziorako liburuxkak, dominak... eta aldi berean esatari eta aurkezle lana egiten du kirol gertaeretan.
- Kirola euskaraz egiteko jardunaldia. Hartan, soziolinguistika eta kirolaren teoriaren arloko espezialistek parte hartu zuten, kirol jardueretan izandako esperientziak azaldu ziren eta mahai inguru bat egin zen kirolariek.
- Prestakuntza berriazkoko bi ikastaro egin ziren, 16 ordu iraun zutenak, Euskarabideak antolatuak, Institutuko langileen ahozko harrerarako eta idatziko lanetarako.
- Zuzendari kudeatzailearen ebazpen batzuk euskaraz egiten hasi dira.
- Barne dokumentazioa aztertzen hasi dira, erabilgarritasuna irizpide izanik dokumentuak ezari-ezarian elebitan egiteko ekintza plana sortzeko.

- **Toki entitateak**

5.2 puntuan adierazi bezala, mankomunitate eta udaletako euskara zerbitzuak bultzatzaile garrantzitsuak dira hizkuntza, kultura, kirol eta gazteria arloetako jarduerak egiteko. Euskara teknikariek kultur, kirol eta gazteria teknikariek koordinaturik lan egin ohi dute halako figurak dituzten toki entitateetan. Biztanleria handiagoa duten mankomunitate edo udalerrietan teknikari bat izan ohi da alor horietako bakoitzerako (kultura, kirola eta gazteria). Entitate txikietan teknikari bakarra ari da hiru alorretan.

8. Ekonomia eta gizarte bizitza

Orain arte Nafarroako Gobernuak ez dio lehentasunik eman ekonomia eta gizarte bizitzaren alorrari. Berrikitan, ekimenak abiarazi dira hura garatzeko.

Hala ere, Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa aplikatuz, aztertu eta zehaztu beharko da euskararen ezagutzaren eskakizunaren beharra jarduera horietan.

- **Merkataritza eta industria**

Euskararen I. Plan Estrategikoak (2016-2019) alor hori garatzeko ardatz estrategikoa ezarri du.

Xedea da euskararen presentzia eta erabilera areagotzea saltokietan, zerbitzu profesionaletan eta enpresetan, ekimen hauek bitarteko direla:

- 1.- Sustapen ekimenak, hala nola lan munduan euskara planak abiarazteko laguntza ematea, enpresek euskaraz ematen dituzten zerbitzuen kopurua handitzeko ekimenak aitzina eramatea, merkataritzaren hizkuntza paisaia euskararen presentzia suspertzeko ekintzak abiaraztea eta sektore sozioekonomikoko diru-laguntzen deialdietan hizkuntza irizpideak ezartzeko azterketak egitea.
- 2.- Elkarlanean aritzea, toki entitateekin koordinaturik kanpainak antolatzeke, merkataritza arloan euskararen erabilera areagotzeko, eta euskaraz eskaintzen diren zerbitzuak ezagutarazteko aukerak aztertzea, profesionalen kidegoekin eta merkataritza elkarrekin batera.
- 3.- Sindikatuen ordezkariekin, enpresaburuen elkarrekin, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarrekin eta euskalgintzako ordezkariekin topaguneak sortzea euskara sustatzeko bideak aztertzeke.
- 4.- Prestakuntza eta baliabideak: aukerak aztertzea enpresetako langileei prestakuntza eta prestakuntza etengabea euskaraz emateko, euskara sartzeko Nafar Lansare–Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egiten duen prestakuntza eskaintzan, euskaraz lan egiteko behar diren baliabideak prestatzea eta identifikatzea (hiztegi digitalak, dokumentu estandarizatuen bankua, webgune berariazkoak eta abar) eta profesionalen ezagutaraztea, eta arretagune bat sortzea, enpresei eta lan munduko erakundeei zuzendua, euskararen inguruko zalantzak, kezak eta premiak argitzeko eta konpontzeke.

Lehenbizikoz, 2017an ireki da deialdi bat lanbide kidegoei eta enpresa handi eta txikiei diru-laguntzak emateko, hizkuntza paisaian, komunikazioan eta zerbitzuak ematean euskara erabil dadin eta langileek prestakuntza izan dezaten bezeroei harrera euskaraz egin ahal izateko. Esleitutako gastua 60.000 eurokoa da.

- **Osasun laguntza**

Osasun publikoak, plantillari buruzko 2016ko abenduko datuen arabera, Nafarroako eremu euskaldunean 12 lantalde ditu Lehen Osasun laguntzarako, eta guztira 269 lanpostu; haietarik 64tan eskatu da euskaraz jakitea, %23,79, eta gainerako 205etan merezimendu gisa baloratu zaie.

Bakar-bakarrik osasun langileak kontuan hartuta, 224 dira, eta haietarik 48k hizkuntza eskakizuna dute, erran nahi baita, %21,43k.

Hemendik labur osasun sektoreko ekintza plana lantzen hasiko da, euskararen ezagutza nahitaezkoa duten lanpostuak definitu ahal izateko, eremu euskaldunean euskaraz dakiten funtzionarioen kopurua handitzeko, eta bertze eskualdeetako pertsoneri harrera egiteko.

- **Gizarte laguntza**

Eskubide Sozialetako Departamentuan, egoitza Iruñean baitu, 5 lanpostutan da nahitaezkoa euskaraz jakitea Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzia erakunde autonomoan. Pertsona horiek mendekotasunari buruzko balorazioak egiten dituztenez, buruz buruko elkarrizketak egiten dizkiete adineko euskaldunei.

Nafarroako Gobernuak hiru zahar etxe kudeatzen ditu (2 Iruñean eta bat Lizarran) eta adinekoendako plazak ituntzen ditu bertzeren zentroetan.

Eremu euskaldunean zahar etxe hauek daude:

- Aita Barandiaran, Altsasu, 42 plaza, 36 itunduak.
- Andra Mari, Lesaka, 70 plaza, 19 itunduak.
- San José, Bera, 40 plaza, 14 itunduak.
- Joaquín Iriarte, Elizondo, 151 plaza, 31 itunduak

Guztietan, titularrak udalak dira eta fundazioenak dira.

Nafarroako Gobernuko Adinekoentzako Zerbitzuen Atalean pertsona elebidun batek lan egiten du; harexen ardura da zentro hauei arreta ematea, hain zuzen ere litekeena delakoz bai erabiltzaileek bai familiek euskaraz jotzea Administrazioa. Orobat, beharrezkoa izanez gero pertsona horrek laguntza ematen ahal dio desgaitasuna duten pertsonen arduratzen den atalari, hizkuntzaz duen ezagutza handiak hartaratuta.

- **Enplegu zerbitzuak**

Nafarroako eremu euskaldunean 8 laguni eskatu zaie euskaraz merezimendu gisa jakitea, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpleguaren sustapenerako dauden bulegoetan lan egiteko.

- **Turismoa**

Nafarroako Turismoaren orri ofiziala euskaraz irakur daiteke.

<http://www.turismo.navarra.es/eus/home/>

Orobat “*Acércate a Navarra-Hurbil zaitez Nafarroara*” argitalpen digitala, urtaro bakoitzean berriturik turismo jardueren agenda argitaratzen duena.

Eremu euskalduneko turismo bulegoetan harrera euskaraz egiten duten langileak daude Bertizen, Lekunberrin eta Orreagan. Halaber Erronkariko, Lizarrako, Otsagabiko, Iruñeko eta Zangozako bulegoetan, eremu mistoan baitira.

9. Mugaz gaindiko trukeak

Hezkuntza programei buruzko informazioaren barnean, 3.7 puntuan aipatu dira mugaz gaindiko bi programa hezkuntzarako eta aisiarako: Luzaideko eta Arnegiko mugaz gaindiko hezkuntza proiektua eta aisialdiko ekintzetarako trukaketak egiteko aukera, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzarako hitzarmen berariazkoaren eskutik.

Gainera, Nafarroako Foru Komunitatea "Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdea" Lurralde Lankidetzarako Europako Elkarteari atxiki eta "Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea" eratu denez geroztik, aukera dago zenbait arlotan mugaz gaindiko lankidetzara programa eta proiektuak egiteko, proiektu eta laguntza deialdien bitartez.

Apirilean proiektu deialdi bat egin zen alor hauetan: eleaniztasuna, gazteen mugikortasuna, kultura eta euroeskualdeetako herritartasuna. **400 000 euroko** zuzkidura du eragileei sostengu emateko prozedura honek.

Mugaz gaindiko 23 proiektu hautatu dira guztira: 13 kultur proiektuei dagozkie, 3 eleaniztasun arlokoak, 6 hezkuntza eta gazteria arlokoak eta bat kirolekoa.

Diruz lagundutako proiektu gehien-gehienetan euskara mugaz gaindiko elkarreraginerako elementua da.